
FAMILIEN ETA IRAKASLEEN PAPER A IKASLEEN IRAKURZALETASUNA SUSTATZEN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: GOLDARAZ LAPUENTE, NEREA

ZUZENDARIA: IBARROLA, JOSE ANTONIO

2019/2020 ikasturtea

Laburpena: Ikasleen iritzi kritikoa sustatzeko irakurzaletasuna sustatzea beharrezkoa da. Hezkuntza sisteman irakurzaletasuna lantzen diren arloak hizkuntzetara mugatzen bada ere, zeharka ikasgai guztietan erabiltzen da. Baina, askotan, informazioa irakurtzeko besterik ez da erabiltzen eta pertsona batek irakurzaletasunaz disfrutatzeko ahalegin gutxi egiten dira. Lan honetan, eskolaren eta familiaren elkarlana erakutsiko da ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko. Horretarako, Ibarberri ikastetxeko ikas komunitatea aztertuko da behaketa, galdetegi eta elkarrizketen bidez. Hiru hilabeteetan zehar, egunero eskola horretan burutzen diren irakurzaletasuna sustatzeko jardueri erreparatuz.

Hitz gakoak: Irakurzaletasuna, Lehen Hezkuntza, eskola eta familia, teknologia.

Resumen: La lectura es importante para desarrollar del pensamiento crítico de los alumnos. En el sistema educativo solo las asignatura de idiomas se utilizan para fomentar la lectura, sin embargo, se lee en todas ellas. Aunque, muchas veces, la lectura solo sirve para leer la información y se hacen pocos intentos para fomentar la lectura como disfrute para cada uno. En este trabajo, se va a enseñar el trabajo entre la escuela y los profesores con el objetivo de fomentar la lectura en los alumnos. Para ello, se analizará las actividades que se realizarán entorno a fomentar la lectura, durante tres meses, en la comunidad de aprendizaje de la escuela Ibarberri mediante la observación, cuestionarios y entrevistas.

Palabras clave: Fomento de lectura, Educacion Primaria, escuela y familia, tecnología.

Abstract: Reading is important for developing students' critical thinking. In the education system only language subjects are used to encourage reading, however, it is read in all of them. Although, many times, reading only serves to read the information and few attempts are made to encourage reading as an enjoyment for everyone. In this work, the work between the school and the families will be showed with the objective of promoting reading in students. For this purpose, the activities that will be carried out around promoting reading during three months in the learning community of the Ibarberri school will be analyzed through observation, questionnaires and interviews.

Key words: Reading, Primary School, school and family, technology.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA	6
3. MARKO TEORIKOA	7
a. Zer da irakurketa?	7
b. Irakurketa ikaskuntzarako instrumentu gisa lehen hezkuntzan	10
c. Irakurtzearen desmotibazioak eta motibazioak ikaskuntza prozesuan	13
d. Familiaren rola ikasleengan irakurzaletasuna sustatzen	16
e. Eskolaren rola ikasleengan irakurzaletasuna sustatzen	18
f. Hezkuntzan tresna berriak: IKT-en inklusioa geletan	20
4. METODOLOGIA	22
a. Helburua	22
b. Testuingurua	22
c. Datuak jasotzea	23
d. Emaitzak	28
e. Datuen azterketa	35
5. ONDORIOAK	37
6. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK	38
7. ERREFERENTZIAK	39
8. ERANSKINAK	44
a. 1. Eranskina: Eskolari baimena eskatzea	44
b. 2. Eranskina: Irakasleei egindako galdetegiaren erantzunak	45

TABLAK

1. Ikerketaren lagina	23
2. Ikasleei inkesta	24
3. Familiei inkesta	26
4. Irakasleei galdetegia	27
5. Ikasleen adina eta parte hartze kopurua	28
6. Ikasleen inkestaren erantzunak	28
7. Familien inkestaren erantzunak	32

GRAFIKOAK

1. Gurasoen adin-maiztasuna	30
2. Gurasoen galdetegiaren erantzuleak	31
3. Gurasoen ikasketak	31

1. SARRERA

Gaur egungo gizartean bizitzeko irakurketa giza jarduera oso garrantzitsua da. Kontuan hartuta hitzez inguratuta bizi garela, irakurtzen ez dakien pertsona batek arazoak izan ditzake bere eguneroko bizitzan. Ikaskuntzarako funtsezko erreminta da, garapen intelektuala sustatzeaz gain, denbora pasaren iturria da; adierazpen, hizkuntza eta imajinazio gaitasuna hobetzen laguntzen duen aldi berean. Beraz, irakurketa hezkuntza curriculumean garrantzitsua da bai, baina bizitzako arlo guztietan ere.

Irakurketaren ikaskuntzak trataera zehatza eskatzen du, izan ere, haurrak kode konbentzional ezberdinez osaturiko sistema batean sartzea eragiten du, modu progresiboan, informazio sinpleak ulertu, interpretatu eta produzitzeko. Hau da, pertsonaren garapen integralean laguntzen du maila kognitiboa, afektiboa, komunikatiboa eta adierazpenean laguntzen du. Horregatik, Lehen Hezkuntzako irakasleak irakurketak duen aberasgarritasun soziala zein pertsonala ikasleei transmititzea beharrezkoa da, ikasleak irakurtzera animatzeaz gain, txikitatik irakurketa ohitura bat sortu eta denborarekin iraungo duena eraginez.

Lana irakurtzen goazen heinean, azalduko da irakurketa zer den, nola sortu zen eta zergatik den garrantzitsua. Era berean, irakurketa oso estuki lotuta dago, bereziki, hezkuntza sistemarekin, eta ondorioz, eskola eta familietara. Beraz, eskolak eta familiek haurraren irakurzaletasuna sustatzeko lagungarriak izango eta hartu beharko lituzken rola deskribatuko dira. Halaber, informaziozko komunikazio eta teknologiek irakurketan ekarri dituzten aurrerapenak aipatzen dira. Beste aldetik, irakurketaren animaziorako erabiltzen ari diren estrategia eta teknika ezberdinei buruz hitz egingo da Ibarberri ikas komunitatean oinarrituz.

Hori dela eta, lan honen helburu nagusia familiek eta eskolak ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko duten paper garrantzitsua ikertzea izango da, Ibarberri ikastetxean burututako 3 galdetegi mota ezberdinetan oinarrituz egin dena.

Laburbilduz, lan honen egituraketa hautatutako gaiaren justifikazio pertsonal zein profesionalarekin hasiko da. Ondoren, irakurketaren marko teorikoa eta erabilitako metodologia azaltzen dira. Azkenik, ikerketa honekin lortutako datuen emaitzak, ondorioak eta hobetzeko proposamenak aurkitzen dira, baita lana egiteko erabili den erreferentzien zerrenda ere.

2. JUSTIFIKAZIOA

Neure haurtzaro eta gaztaroari begira, oso liburu irakurzalea izan ez naizela aitortu beharra daukat. Betidanik denbora galtze hutsa zela pentsatu izan dut: Internetaren mendena jaio eta bizi izan naizenez, niretzako errazagoa zen telebista, ordenagailu, mugikor edota beste motatako informazio iturri ikus entzunekoek erakarria sentitzea. Horiei esker, zerbait ikusten eta entzuten hasten nintzenean, eta gustuko ez nuenean, *klik* soil batekin beste zerbaiteira pasa nintzatekeen eta liburu batek, berriz, liburutegira joatea eskatzen zuen. Horrez gain, nire gurasoak ez dira oso liburu-irakurzaleak, egunkariaz gain gutxi asko irakurtzen dute eta.

Txikitatik nahiago izan dut beste motatako jarduerak egitea eta horregatik, ez dut gogoratzen adin horietan irakurritako libururik, gaur egungo haurren antzera, eskolatik bidalitako liburuez gain ez nuen ezer irakurtzen. Hori dela eta, ulermen eta komunikazio arazoak izan ditut: gogoan ditut euskara eta erdarako ulermen frogak egiterako orduan ezintasunarengatik isuritako malkoak eta nire amak entzun behar izan zituen amorru oihuak, eta tamalez, oraindik izaten ditut.

Eskolak irakurmena lantzeko modu bitxia bazuen ere, niri presio eta estres egoera sortarazten zidana, Lehen Hezkuntzako 6. mailan nire tutoreak nik telebistan izugarri maite nituen marrazki bizidunen komikiak ekarri zizkidan irakurtzeko eta hor izan nuen irakurketarekiko lehen miwesmena. Momentu hartan, munduko denbora guztia izan nuen lasai-lasai irakurri eta pertsonaiek esaten zutena ulertu eta interpretatzeko.

Etorkizuneko Lehen Hezkuntzako irakasle gisa, nire praktikaldietan zehar irakurketarekin harremana izan duten hainbat ekintza praktikan ikusteko aukera izan dut, ikasle, irakasle eta familien arteko elkarlanari esker oso aberasgarriak izan direnak. Hilabete horietan zehar, haurren zorientasuna ikusteko gai izan naiz ikasleek haien parekoei edota helduei zerbait irakurtzen ziotenean. Bestalde, haur batzuen irakurtzeko ezintasuna zela eta haien lotsa eta beldurrak ere antzeman ditut.

Gainera, sozialki arreta handia pizten duen gaia dela uste dut. Gizartean hainbat ikerketek irakurmenarekiko desinteresa plazaratu dute, non biztanleri gehienari irakurtzea gustuko ez duela edota esfortzu gehiegi eskatzen duela adierazten zen (PISA, 2009).

Nire ustez, irakurzaletasuna haurtzarotik sustatu behar da, baina gauzak nola egiten diren kontuan hartuta emaitzak oso desberdinak izan daitezke. Aurretik aipatutako guztiagatik, nire Gradu Amaierako Lana familien eta eskolaren elkarlanaren bidez ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko garrantzia ezagutzeko eta azpimarratzeko aukera paregabea dela deritzot.

3. MARKO TEORIKOA

Ondoren, ikerketan garrantzitsuak diren ideia nagusiak aurkezten dira. Ideia hauek, sei ataletan egituratu dira: irakurketaren definizioa, irakurketa lehen hezkuntzan, irakurtzearen desmotibazio eta motibazio arrazoiak ikaskuntza prozesuan, familiaren eta eskolaren rola ikasleengan irakurzaletasuna sustatzen eta, azkenik, hezkuntzan tresna berriak: IKTen inklusioa geletan.

a. Zer da irakurtzea?

Irakurketa giza jarduera bat da. Giza jarduera guztiek bezala, dimentsio biografikoa, historikoa eta soziala dauka.

Irakurketa, ahozko hizkuntza gisa, jarduera kognitiboa da: *“La lectura se puede definir como un proceso complejo con el cual se construye significado a partir de símbolos impresos, utilizando el conocimiento sobre el alfabeto escrito y sobre la estructura de los sonidos de la lengua oral, con el propósito de alcanzar la comprensión”* (Snow, 1990).

Autore batzuek maila handiko prozesu mentalak antolatzeke gaitasun konplexu gisa definitzen dute, non ebaluazioa, epaiketa, imajinazioa, arrazoibidea eta arazoaren ebazpena menperatzea eskatzen duen. Testu bakoitza modu aktiboan, kompetentean, kritikoan, sortzailean, ematen duen informazioa antzeman, ulertu, kokatu eta baloratu, hau da, interpretatu eta bakoitzarentzako eta bere ingururako funtzionala egitea (Ostria, 2005). Hau da, irakurketa testuak ulermen eta interpretatzeko gaitasunarekin identifikatzen da.

Nahiz eta irakurketan zenbait prozesu pertzeptual, linguistiko eta kognitiboak daudela jakin, Gough eta Tunmerrek (1986) eta Hoover eta Gough-ek (1990) irakurketaren definizio sinplea eskaintzen dute. Haien ustez, irakurketa ikusmenaren bidez hitzak antzematearen mikroprozesuak eta ulermenaren makroprozesuak jarraitzen dituen ekintza mentala da.

Hori dela eta, irakurketa bi prozesutan sailkatzen eta oinarritzen da: deskodeketan eta ulermen-interpretazioan, eta biak dira ezinbestekoak irakurketaren ikaskuntzan. Izan ere, testua ulertu gabe deskodeketa egitea ez da irakurketa eta, alderantziz, deskodeketa egin gabe zerbait ulertzen saiatzea ez da irakurtzea. Vieiro eta Gómez (2004) definizio honekin bat zetozen, testu baten esanahia eskuratzeko bi prozesu jartzen direla martxan esan baitzuten: mezuaren azterketa sintaktikoa eta interpretazio semantikoa.

Deskodeketa prozesuari dagokionez, berebizikoa izango da irakurtzen ari den hizkuntzaren soinu eta idazketa sistemaren ezaugarrien arteko harremana kontuan hartzea. *“La persona ha de tener un conocimiento básico de las letras que corresponden a cada*

unidad mínima de sonido en la lengua. Además, debe conocer palabras de la lengua y debe adquirir un patrón de reconocimiento rápido de palabras familiares” (Carreiras, 1997). Izan ere, deskodeketa prozesua ikusmenaren bidez hitzak antzematek, letrak identifikatzea eta dagozkien fonemekin elkartzea, hitzak azkar eta era automatikoan ezagutzera luzatzen da.

Hau da, ikusmenaren bidez hitza osatzen duten letrak identifikatzen ditu, inolako interpretaziorik burutu gabe eta informazioa jatorrizko egoeran mantenduz. Ondoren, prozesu lexikoa hasten da, non hitzen arteko harremanak aztertzen diren. Hitzez gain, idatzitako unitate diskurtsibo handiago hauek ere (esaldiak, deskripzioak, argumentuak, narrazioak...) testuaren informazioa transmititzen baitute.

Cuetos, Rodríguez eta Ruanok (2004) diote, *“La identificación de letras es un proceso necesario para poder leer, pero no es suficiente. De hecho podemos identificar las letras de un escrito elaborado en cualquier idioma alfabético sin que por ello entendamos nada de lo que ahí se expresa. Reconocer una palabra implica descifrar el significado que ese grupo de letras representa.”* Aurretik azaldutako prozesu gramatikalek irakurleari erramintak ematen dizkio esaldien eta testuen barnean dauden hitzen esanahia ulertzeko: testuaren hizkuntzaren sintaxia eta morfologia, hain zuzen ere. Beraz, egia da prozesu gramatikalek paper garrantzitsua jokatzeko dutela, baina ez dira irakurketaren ulermena lortzeko nahikoak. Horregatik, hurrengo pausua identifikatutako hitz horri esanahia ematea izango litzateke.

Van Dijk-en (2000) aburuz, *“la comprensión es un proceso mediante el cual se atribuyen significados o sentidos al texto”*. Hau da, ulermena eta interpretazioa testuari zentzua ematearekin lotzen du; non irakurleak, modu aktiboan, irakurtzen duenaren eta bere bizitzan zehar bizi eta memorian era ezberdinetan (ikusmen, entzumen, emozional... eta abar) gordetako munduaren ezagutzari buruzko informazioaren arteko transakzioa burutzen duen. Irakurketaren bidez, irakurleak esperientatu gabeko ingurune eta esperientziei buruzko irudi mentalak eraikitzen ditu ere, bizitzaren ikusoegia zabaltzeko bidea delarik. Beraz, gizakiaren edozein komunikazio adierazpenak arrazoibide prozesu bat egitea eskatzen du, hau da, esaten edo irakurtzen denaren ulermena eta interpretazioa.

UNESCO-k (in Wagner, 1990) alfabetizazio funtzionala deitzen dio pertsona batek esparru sozial eta kulturean modu eraginkorren jarduten dakienean, irakurle konpetentzia duenean, hain zuzen ere, non bakoitzak bere ideia, bisio eta errepresentazioak ezagutzekin lotzen dituen.

Askotan, esplizituki agertzen ez diren ondorio logikoak egoten dira, eta beraz, inplizituki antzeman behar dira. Adibidez, *“Nire amak eguzkitako krema botatzeko esan di”* esaldiaren barruan subjektua kalera doala eta kanpoan eguzkia dagoela ondorioztatu

daiteke inplizituki. Laburbilduz, irakurketa prozesuan aspektu esplizituen eta alderdi inplizituen arteko jolasa ematen da. Hala ere, Sperber y Wilson egileek(1994) diote jolas honetan aurkitzen dela ulermen eta interpretazioaren xarma.

Laburbilduz, Gough-ek (in Hoover eta Gough, 1990) proposatutako definizio honek hainbat ikertzaile eta profesionalen interesa piztu du irakurketak idatzizko komunikazioaz gain, ahozko hizkuntzarekin duen harremana argi eta garbi erakusten duelako: *“La lectura aprovecha el conocimiento lingüístico y los procesos involucrados en el desarrollo de la lengua oral y que se relacionan con hablar y escuchar”* (Kamhi eta Catts, 1999).

Irakurketak idazketarekin harreman estua mantentzen du. *“La lectura se adquiere a través de dos conocimientos previos e imprescindibles que son el lenguaje y la escritura. Aprender a leer conduce al lector a descubrir un mundo nuevo y aporta una sensación de poder y libertad nunca antes percibida. Probablemente no haya acontecimientos más importante en la vida de un niño que aprender a leer ya que la lectura le ayudará a descubrir el mundo que le rodea”* (Marina eta De la Valgoma, 2005). Idazketa mende askoz existitu izan da, baina lehenengo eskuizkribuak gutxi batzuen eskura egon zen. Are gehiago inprentaren sorrerarekin, non liburuak hedatzea eta irakurleen kopurua handitzea ekarri bazuen ere, XX. mendearen hasieran Espainiako biztanleriaren %75 analfabetoa zela estimatzen da, hau da, ez zekien ez idazten ez irakurtzen.

Garai hartan, gizartean irakurketa botere eta autoritate gisa islatzen zen. Izan ere, irakurketa aisialdian burutzen zen luxuzko jarduera izateaz gain, irakasle, abokatu, mediku eta, batez ere, elizari boterea ematen zien, liburuak jakinduriaren iturria zelako (eta delako).

Beraz, gizartean boterea zuten pertsoneri ez zitzaien biztanleri alfabetatua izatea komeni, irakurketak iritzi kritikoa eta estatuaren aurkako interes zein ideiak sustatu ahal baitzituen. Hori dela eta, autoritate zibil eta erlijiosoek liburuak erretzeko agindua eman zuten, debekaturiko irakurgaien zerrenda argitaratu zuten eta Bibliaren erabilera murriztu zuten.

Modu honetan, irakurzalea zena bere ongizatean pentsatu beharrean kuriositatearen indarrak kanpoko munduan interesa piztea ekartzen zuen. Ekintza arriskutsu hau jarduteak inkisizioaren aurrean epaitua izatea eragiten zuen, etxea eta ohorea galtzen zuen aldi berean, eta heriotza-zigorra ekiditeko era bakarra analfabeto izaten jarraitzea zen.

Irakurketa jarduera soziala da: beti irakurtzen da norbaitekin. Haurrari ipuina kontatzen zaio, analfabeto helduari bere seme-alabak idatzitako gutunak irakurtzen zaizkio eta Bernardo Atxagaren *“Obabakoak”* irakurtzen duen ikasleak irakaslearen laguntzaz egiten du. Hori dela eta, irakurketa bakarrik zein gizartearekin batera burutu behar da, gizarteko baloreak barneratzen diren aldi berean. Abril-en (2000) aburuz, *“el fenómeno de leer para*

discutir y discutir para conocerse evidencia tanto la necesidad de cohesión social como ofrece la posibilidad de favorecer la convivencia”.

XXI. mendearen hasieran, inork ez zuen eztabaidatzen irakurketa ahalik eta pertsona gehienaren artean zabaldu behar zela. Hori dela eta, gaur egun, herrialde garatuetan irakurketa biztanle guztiarentzako eskuragarria da, hau da pertsona guztiek dute aukera eta gaitasuna irakurtzeko, informaziozko komunikabide eta teknologiei esker. Aurretik aipatutako garai gogorrekin konparatuz gero, non irakurketa klandestinoak zein marjinalak zen, egoera hau pentsaezina zen.

Halaber, irakurtzen dakiten pertsonentzako irakurketa prozesu sinplea da, automatikoki eta konturatu gabe egiten dutelako. Baina irakurtzen ikasten dabilen haur batentzako prozesu konplexu eta zaila da, batez ere, ikasleak behar dituen baliabideak eskaintzen eta errazten ez bazaizkio.

b. Irakurketa ikaskuntzarako instrumentu gisa lehen hezkuntzan

Centelles-ek (2006) irakurketaren ikaskuntzari buruz dio: *“Aprender a leer, y hacerlo con frecuencia y con placer, es la base de todo aprendizaje posterior, incluso a los aspectos que hacen referencia a los valores y las conductas. Es evidente que no es suficiente con saber leer correctamente, pero sin este conocimiento todo es más difícil y complicado”.* Irakurketaren errendimendua ez da hezkuntza sistemaren beste ikasgaien funtsezko materiala bakarrik, baizik eta adineko bizitzako arlo guztietan arrakastatsu parte hartzeko lehentasuna duen tresna ere bada. Ez da jarduera sinple bat, oso konplexua da: operazio kognitibo ugari egitea eskatzen du, automatikoki garatzen doana eta aldi berean ohitura bihurtzen dena.

Gaur egungo munduko egoera azkar aldatzen da, eta ondorioz irakurketa kompetentzia aldaketa sozial zein kulturekin batera eboluzionatzea eragiten du. Hori dela eta, PISA (in Ministerio de Educación. Secretaría de Estado de Educación y Formación Profesional. Dirección General de Evaluación y Cooperación Territorial. Instituto de Evaluación, 2010) aburuz, hezkuntzaren helburua ez da soilik informazioaren ulermena eta memorizazioa, baizik eta eskuraturiko ezagutza horiekin ikaskuntza esanguratsua sortu eta eguneroko bizitzako egoera ezberdinetan erabiltzea. Horregatik, edozein informazio eskuratu, ulertu eta hausnartzeko gaitasuna duten indibiduoak sortzea funtsezkoa da gizartean osotasunez modu aktiboan parte hartzeko eta bere beharrei erantzun ahal izateko.

Lehen Hezkuntzako etapan zehar, irakasleen eta ikasleen helburua ikasleek irakurtzen ikasi eta, aldi berean, irakurmena lortzea da. Horrela bada, Nafarroako Foru

Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duen 60/2014 FORU DEKRETUAN irakurketaren garrantzia azpimarratzen da.

Hasteko, 3. artikuluan, Lehen Hezkuntzako printzipio orokorren artean, *“ikasleek ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa eta kalkulua ikastea eta kulturaren oinarritzko ideiak, bizikidetzako aztura, estudiatzeko eta lan egiteko aztura, zentzu artistikoa, sormena eta afektibitatea eskuratzea da. Horrela, ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatu eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatuko dira.”* Horregatik, irakurketa hasierako etapetan oinarritzko helburu bezala azaltzen da, eta hobetzeko gisa ondoren.

Era berean, oinarritzko konpetentzien garapenerako irakurmena funtsezkoa dela azpimarratzen da: 7. artikuluan, zeharkako elementuak *“etapako arlo batzuetan tratamendu berariazkoa ematea ezertan galarazi gabe, arlo guztietan landuko dira irakurriaren ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, ekintzailtza eta hezkuntza zibiko eta konstituzionala”* idatzita aurki daiteke.

Halaber, 8. artikulua 3. zatian *“hizkuntza komunikazioko gaitasuna gainerako gaitasunak eskuratzeko funtsezko faktorea denez, irakurtzeko estrategien eta testu idatzien ekoizpenaren irakaskuntzari tratamendu berezia emanen zaio. Gainera, egunero irakurtzeko denbora erreserbatu beharko da arlo guztietan, horrek deusetan galarazi gabe irakurketa sustatzeko behar beste saio gehigarri ezartzea”* irakurketari erabilera berezia eskaini behar zaiola aldarrikatzen du.

Izan ere, irakurketan zailtasunak izanez gero, beste ikasgaien ikaskuntzan arazoak izatea dakar: natur eta gizarte zientzietan, matematikan... Hori dela eta, Gaztelania, Euskara eta Atzerriko Hizkuntza ikasgaietara irakurketaren konpetentzia mugatzea ezinezkoa da, ikasgai guztietan landu behar baita.

Azkenik, Lehen Hezkuntzako etapan lortu beharreko helburuetan: *“Gaztelania eta, bere kasuan, euskara modu egokian jakin eta erabiltzea eta irakurtzeko aztura bereganatzea, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikasketarako erabiltzen hastea, eta jasotzen eta lantzen diren mezuen aurrean jarrera kritikoa hartzea eta irakurketa ohiturak”* garatzea aipatzen dira, irakurketa konpetentzia eskuratzeko beharrezkoak direnak, besteak beste. Romeroren (2009) aburuz, *“la lectura es un elemento nuclear que posibilita el acceso a la información de los diferentes materiales y disciplinas que componen el currículum. En consecuencia, el desarrollo de la comprensión lectora ha posibilitado el acceso a las diferentes competencias educativas”*.

Cerrillok (2007) irakurketa jarduera kognitibo eta ulermen konplexua duena baino gehiago dela dio, aisialdiko ekintza bat da. Horregatik, boluntarioki eta indibidualki egin behar dela defendatu zuen. Hori dela eta, derrigorrezko irakurketa eta inizatiba propioz egiten den irakurketaren arteko oreka ezarri behar da.

Lagek (2006) ideia honekin bat zetorren: *“El centro educativo y los docentes disponen de dos estrategias para animar a la lectura: “las tendencias a despertar la curiosidad y la afición lectora y las que tratan de consolidar y afianzar una afición que se debe apuntalar”*. Alde batetik, irakurketa ohitura izatea eta, bestetik, ezagutza berriak eskuratzea autonomiaz eta zailtasunik gabe jokatzeko.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek jarduera mental eta operazio fisiko konplexuak martxan jartzen dituzte, irakurketa ohituren hasiera, hain zuzen ere. Irakurtzen duen heinean, azkartasuna eta arintasuna eskuratzen joango da, testua ulertu eta jarduera atsegina bihurtzen den aldi berean. (Cerrillo eta García, 1996)

Hasieran, ikaslearentzako esfortzu handiko jarduera izango da, baina irakasleek ikasleengan egunero egin behar dute, ekintza ludiko gisa umeentzako dibertigarria izan dadin, ohitura bihurtu arte. Irakurketa zerbait aspergarri izatearen ikusmena ezabatu behar da, irakurketa bat derrigorrez amaitu behar izatearen presioa kenduz eta irakurketaren erdian gustuko ez duela konturatzen bada, uzteko aukera duela jakin, iritzi propioak garatuz (Cassany, 2002).

Azkenik, DIEBELS (in Riedel, 2007) izeneko irakurketa ebaluazio programan, 8 urterik aurrera oinarrizko irakurketa teknikak (kontzientzia fonologikoa, alfabetizazioa, jariaortasuna, hiztegia eta ulermena) menperatzen dituela frogatzen duena, irakurlearen interesak biltzen dituen irakurgaiekin kontaktuan oinarritutako irakurketa bultzatzea beharrezkoa da irakurzaletasuna modu atseginean luzatu eta ohitura bihurtzeko.

Hori dela eta, liburutegia irakurketa baliabide eta animatzaile gisa aurki daiteke. Horretarako, ezaugarri orokor batzuk bete behar ditu: toki eroso eta abegikorra izatea, material onak eta askotarikoak eduki behar ditu ikasleentzako eskuragarri eginez, liburuzainaren gaitasunekin batera irakurlea orientatzeko, zein eskolekin harreman estua mantentzea, esperientziak partekatuz eta formazioa sustatuz. Liburutegia eta liburu saltzaileak liburuekiko maitasuna izateaz gain, bezeroei aholkuak ematen jakin behar du bere interes eta beharrei erantzun egokia emanez. Bestalde, argialetxeak, komunikazio baliabideak, lagun taldeek... ere zer esana dute.

Laburbilduz, irakurketa gozamenaren iturri zabala eta eskolako ikaskuntza eta arrakastaren gakoa da, garapen pertsonalaren eta sozializaziorako oinarrizko tresna den modu berean. Hala eta guztiz ere, irakurketa konpetentzia garatzea ez da lan erraza, era

askotariko faktoreek eragiten baitute: hauren interesa zein motibazioak, faktore psikologikoak, garapen kognitibo, sensorial eta psikomotorrak eta harreman afektiboak. Alderdi hauen elkarlanak esango du haur bat irakurtzen ikasteko prest dagoen edo ez, eta prest egonez gero irakurketa ikaskuntzaren ze fasetan dagoen. Gainera, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten agenteen koordinazioa eskatzen du: ikasle, irakasle, aita, ama eta tutore legalaren artekoa, alegia.

c. Irakurtzearen desmotibazioak eta motibazioak ikaskuntza prozesuan

Irakurzaletasuna zer den eta haren sustapenak Lehen Hezkuntzako ikasleen ikaskuntza prozesuan duen garrantzia azaldu ondoren, hasierako adinetan irakurketari uztearen kausa nagusienak azalduko dira jarraian, baita irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa ohitura baten beharraren arrazoiak adin gazteenetatik ere.

Adin goiztiarretatik irakurketarekiko gozamina sustatzeak duen garrantzia hainbat autore, ikerketa eta esperientzietan ikusi daiteke. 1993ko martxoaren 29an Camilo José Celak ABC egunkarian “*Irakurketaren ohitura*” izenburuarekin argitaraturiko artikulua polemikoan, mundu guztian zehar jendeak gutxiago irakurtzen zuela eta irakurtzean gaizki zein etekinik atera gabe egiten zuela aldarrikatu zuen. Horren ondorioz, gizartean irakurlearen identitatea arriskuan dagoela esan daiteke.

Irakurketaren animazioaren alde borrokatzen duten pertsonak ikasleen aldetik irakurketarekiko desmotibazio sakona dagoela aldarrikatzen dute. Carrataláren (2008) aburuz, adibidez, irakurketarekiko interesa ez izatearen arrazoi nagusienetarikoa umearen lehenengo agente sozialak, familiak hain zuzen ere, eredu ez izatea da. Hau da, inguru afektibo pertsonalean, non guraso eta haurren elkarbizitza egiten den, ez dago irakurtzeko tradizioirik. Ondorioz, teknologia eta soinu altuko espazioa gailentzen da, irakurketa erraztuko lukeen espazio lasaiaren aurretik.

Gizartean irakurketaren ikuspegi positiboa zabaltzea ez da lan erraza: ikaslearen aisialdian toki bat aurkitzen saiatu behar da ikaslearentzako motibagarriagoak izan daitezkeen beste ekintzen artean. Vid. Marchamalak 2004. urtean argitaraturiko ikerketa batean, hurrei aisialdi-jarduera gustukoena galdetzean, irakurketa azken aurreko postuan dagoela ikus daiteke, “ezer ez egin” aukeraren aurretik.

Irakurketari eskaintzeko une egokia aurkitzeko oztopatzen duten beste jarduera motak dira, esaterako: ordenagailu edo bideo jokoetan ibiltzea, telebista edo irratiko

programak jarraitzea... edo eskolaz kanpo egiten diren ekintzak, hala nola: kirol ezberdinak egitea, lagunekin kalera ateratzea eta izaera kulturalako ospakizunetara joatea izan daitezke.

Denbora horretan, eskolako jardunaldiak sortarazitako nekearen ondoren eginbeharreko eskolako lanak ere aurkitzen dira, esaterako: epe baten barruan entregatu beharreko lanak, azterketak prestatu beharra... Lan hauek familiaren eremuan ongi ikusiak daude haurra lanpetuta egoteaz gain, ikasten ari direnaren irudiak asetzen dituelako, nahiz eta, askotan, ikasleen ikaskuntzarako jarduera esanguratsuak ez izan.

Horrela bada, denbora eta kontzentrazioa eskatzen duten aurretik aipatutako ariketek lehentasuna hartzen dute irakurketarako momentu psikologiko egokiena aurkitzea zailduz. Hau da, pertsona bakoitzaren interesetan oinarrituz, aisialdian egiten dituen jarduerak eta eskolako eginbeharrek irakurketarako denbora ez izatea eragiten dute baita irakurketa gutxietsi ere.

Gainera, irakurketa derrigorrezko zeregin bezala zabaldua eta burutua da hezkuntza esparruan “*Se puede forzar a un estudiante a leer, pero no se puede conseguir que le guste la lectura a base de presión*” (Álvarez, 2013). Guillermo-k (1993) haurrak irakurtzen duenean presioa jasaten duela aldarrikatu zuen, jarduera lortezina eta errefusatua bihurtuz.

Are gehiago, irakurtzen irakasten da, baina ez zertarako irakurri. Hau da, irakurketa egin aurretik helburuak zehazten dira, ondorio jakin batzuk lortzeko asmoz eta horiek irakurleari transmititu ezean, ekintza ez esanguratsua bihurtzen da. Horregatik, Pennac (2001) eskolan irakurketa derrigorrezkoa izateaz gain, ebaluatua izan beharra kritikatu zuen. Izan ere, *zer eta zertarako, zenbat* baino balio gehiago duela uste du.

Halaber, liburua irakurlearen adeigarri eta egokia ez izatearen arrazoia dago. Alde batetik, liburuaren itxura non luzaera eta bolumenari behatzen zaion, letra tipo txikiak irakurketa zaildu dezakeen eta ilustraziorik ez egoteak zein gehiegizko testuak irakurketa aspergarri zein pisutsua sorta dakioke. Beste aldetik, sarrera luze eta konplexuak nahiz deskribapen sakonak dituzten nahiz zailtasun lexikoak argitzeko balio duten oharrez beteriko edizio ezaugarriak kontuan hartu behar dira. Azkenik, edukiak ere eragina dauka: hasieratik irakurlearen interesa pizten ez duenean, bere errealitatearekin zerikusirik ez duenean, eta ondorioz irakurlearen ezjakintasuna agerian uzten denean, gertakizuna motel garatzean eta antzinako hizkuntzan edo bertsoan idatzitako testuek ulermena zail eta aspergarri bihurtzen dira.

Horrez gain, ikus entzuneko euskarriek (zinematografia) azkarrago eta erraztasun handiagoz informazioa eskuratzea, ulertzea eta esfortzu intelektual handirik egin gabe gozatzea dakar. Abantailak bai, baina desabantailak ere baditu: hartzaile pasiboagoa sustatzen du.

Irakurtzeko nahiak ez du adinik. Edozein momentutan irakurketara uztartzea ona da. Haatik, hasierako adinetan edozein ikaskuntzarako interesa pizteko gaitasuna handiagoa da. Irakurketan, amaiera imajinatzea, liburu ilustrazio bat behatzea, testuari lotuta doan irudia aztertzea, kapitulu bat amaitu eta beste bat hastea... helduen eguneroko jardura da, baina haur batentzako bizipen berri eta deigarriak dira. Mata-k (2009) esan zuen bezala, *“lo que aprende a amar en los primeros años difícilmente se repudia”*.

Irakurzaletasuna sustatzearen lanean, eskolaren zeregin etengabea funtsezkoa da: jendea irakurtzera animatzeko teknika berriak garatzea nahitaezkoa da eta ikastetxe bakoitzak ikusi beharko du ze posibilitate dituen mugak posibilitate bihurtzeko.

Irakurketa edozein pertsonaren oinarritzko jardura den heinean, sustatzeko zeregina dago gizartean, baina zertarako irakurtzen da?

Osororen (2002) aburuz, irakurtzearen onurak hurrengoak dira: garapen pertsonal, intelektual, afektibo eta moralean laguntzen du; fantasia, amets eta emozioen bidez mundu errealetik askatu eta plazerra ematen du; imajinazioa esnatu eta kreatibitatea indartzen du; arazo psikologikoak eta afektiboak (beldurra, jelsiak, konplexuak) ulertzeko eta konpontzeko balio du; hausnarketaren bidez pentsamendu kritikoa eta arrazoitzeko gaitasuna garatzen ditu; zenbait gaitasun linguistiko estimulatu zuten adierazteko hiztegia hobetuz, ortografia bikainduz eta genero zein estilo literario ezberdinak ezagutuz; ozen irakurtzean arreta hobetzen da; baloreak transmititzen ditu; memoria garatzen du; eta indibiduoaren autonomia bultzatzen du.

Samaniego-k (2015) liburuak jarrera edo egoera bat kontrolatzen ikasteko baliabide gisa erabili daitezkeela aldarrikatu zuen, esaterako: esfinterren kontrola, anai edo arreba baten iristea, eskolara joatea lehendabiziko aldiz... Haur batek bere bizipenekin erlazio duen istorioa irakurtzean identifikatua sentitu eta lasai egoten da beste norbaiti egoera bera gertatzen ari zaiolako.

Irakurketari esker, irakurleak beste pertsonen esperientzia errealak edo fikziozkoak ezagutu eta partekatzen ditu, pentsatzeko beste modu zein propioak eraikitzen ditu, imajinazioa lantzen du, kreatibitatea estimulatu du... bere garapen pertsonalaren lagun

mina bihurtzen da. Irakurleak irakurtzen duena gustatzen zaionean, irakurle kontzientzia sortzen eta garatzen hasten da.

Irakurmena gozaten duenez, beti aurkitzen du toki eta denbora aproposa irakurketa egiteko: pozik edo triste egotean, jarduera fisiko edo intelektuala egin ostean, lo egin aurretik, estresa baretzeko momentuan, oporretan, eginbeharrak ez daudenean, bidai labur zein luzeetan... kanpoko eragileen proposamenei edota irizpide pertsonaletan oinarrituta eginez.

Irakurketa entretenimendu gisa luzatzeko, eta ez gizartean zabaldua dagoen derrigorrezko zeregin ideei bezala, hainbat faktore kontuan izan behar dira: irakurlearen interesak, motibazioak, garapen maila, adina eta prozesuan parte hartzen duten agenteak, bereziki. *“La lectura y su aprendizaje supone una de las principales prioridades tanto para las familias, como para los docentes como para niños y niñas en edad escolar, especialmente en su inicio, ya que de su desenvolvimiento en este aprendizaje dependerá el éxito o fracaso en su futuro escolar”* (Moreno, 2001).

Irakurketaren desmotibazio kausak zein motibazio arrazoiak aztertu ondoren, familia zein eskolak irakurketaren animatzaile gisa duten paper garrantzitsuaren deskribapena burutuko da ondoren.

d. Familiaren rola ikasleengan irakurmena sustatzen

“La función pedagógica es la más importante en el nivel inicial, pues se ocupa de optimizar el desarrollo integral del infante, ya que considera los aspectos socioafectivos, cognitivos y nutricional, tomando como punto de partida la familia, primer agente educativo del contexto sociocultural que rodea al niño” (Chaves, 2002). Familiaren papera funtsezkoa da haurren ikaskuntza prozesu integralerako.

“La familia desempeña un papel fundamental en el desarrollo y afianzamiento el hábito lector en los niños porque tiene que ser el entorno de estos quien inicie una conducta asertiva, como es el gusto por la lectura y se debe hacer en edades tempranas para que disfruten lo que leen, piensan y hablan” (Pérez, 2012 eta Gómez, 2012). Gurasoak haurrentzako ispilu bat dira, haientzako jarraitzeko eredua dira. *“El niño tiende a copiar modelos que ve”* (Marina eta De la Válgoma, 2005). Izan ere, haur txikiek helduen jarrerak imitatzeko ohitura dute. Beraz, gurasoak irakurmenarekiko pasioa transmititzea eta eredu izatea ezinbestekoa da.

Hori dela eta, hurrek irakurketarekiko miresmena eskuratzea oso zaila da gurasoak irakurtzen ikusi gabe edota helburu atsegin batekin burutzen ez dutela ikusiz gero. Hurrek haien gurasoak irakurtzen ikusten duten heinean, hau da, irakurtzeko ohitura bat dutela antzematen dutenean, kuriositatea sentitu eta imitatzen saiatuko dira, irakurketa ohitura hartzen joango diren modu berean. *“La familia es el pilar para la creación y fomento del hábito lector”* (Gasol, 2005).

Irakurketa ohitura ona duten familietan, umeek ere praktikatu izan ohi dutela baieztatzen duten ikerketa ugari egin dira, hala nola, Vance-k (in Vance, Smith eta Murillo, 2007) Mexikon egin zuena non haurrari bere intereseko liburuak erosi eta gurasoari normalean irakurtzen ikusten duen umeetan familiak duen garrantzia islatu zuen.

Bestalde, Fiz-en (In Fiz eta al., 2000) ikerketa dago. Bertan, etxean irakurri eta irakurzaletasuna bultzatzen duten familien seme-alaben irakurketa ohitura handiagoa da, non hurrek etxean ikusten dutena imitatatzeaz gain, ohitura propioak sortzen dituzte.

Gazteei egindako ikerketetan, berriz, Strommen eta Mates-en (2004) ikerketan familiekin irakurzaletasuna partekatzen duten ikasleengan irakurketa ohitura garatuagoa zegoela ikus daiteke. Doman-en (2008) aburuz, *“los niños que aprenden a leer cuando son pequeños tienden a comprender mejor que los jóvenes que no aprendieron”*.

Horregatik, gurasoek jarrera aktiboa izan behar dute haien seme-alabek irakurketan interesa pizteko. Horretarako, bere seme-alabei ipuin, poema, abesti... ezberdinak irakurri behar dizkie. Garapen eta gustu ezberdina duten pertsonentzako liburu aukera ugari dago. Gurasoek hurrei ipuin bat modu dibertigarri eta dinamikoan kontatzeak haurraren garapen integralean onurak izateaz gain, harreman afektibo-soziala sendotzen laguntzen du (Samaniego, 2015).

Horrez gain, Marina eta De la Valgoma (2005) aburuz, egunean behin familian irakurtzeko uneak izatea, liburuen iritziak adieraztea, liburu egokiak hautatzea haurren zaletasunekin loturiko gaiak aukeratuz, telebistarekin oreka finkatzea eta liburutegietara joateaz gain, irakurketarekin harremanetan burutzen diren ekintzetan parte hartzea gurasoen eginkizuna da irakurzaletasuna sustatzeko. Era berean, hurrek irakurketa ohitura bat izateko egunero irakurtzearen garrantzia azpimarratzekoa da, beti ere derrigorrezko irakurketaren ideia baztertuz.

Beraz, umeengan irakurzaletasuna sustatzeko familiaren rola deskribatu ondoren, eskolak ikasleengan irakurketa ohitura garatzeko (edo sortzeko) jokatzeko duen paper garrantzitsuaz hitz egingo da hurrengo atalean.

e. Eskolaren rola ikasleengan irakurmena sustatzen

Eskolak, bigarren agente sozializataile gisa, ikasleengan irakurketa ohiturak sortzeko paper garrantzitsua jokatzeko du, irakurzaletasuna xede duelarik. Irakurketa curriculumaren barnean garatu beharreko aspektu garrantzitsuenetarikoa da, kontuan hartuta garapen intelektuala, hizkuntzaren ezagutza, komunikazio gaitasuna eta baloreen barneratzean laguntzeaz gain, denbora pasa iturri dela eta irakurlea hezten duela.

Hezkuntza esparruan, irakasle zein profesionalek ardura zuzena daukate lan honetan. Tamalez, etorkizuneko irakasle asko ez daude gaituak ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko eta ondorioz, bolondreski prestakuntza hutsune hori hornitu beharko dute. Gainera, gizarteak irakurketaren ikaskuntza eskolan uzten du zama guztia. Hori dela eta, atal honetan, eskolak irakurzaletasuna bultzatzeko jokatu beharko lukeen animatzaile papera deskribatuko da.

“Nadie duda a estas alturas que la experiencia de leer debe ser ante todo grata y deseable. Pero una cosa son los discursos y otra bien diferente la práctica cotidiana” (Mata, 2009). Eskolak, normalean, irakurketaren aspektu mekanikoei izugarritzko garrantzia ematen dio: azkartasun eta ahoskera egokia izateari, besteak beste, alfabetizazioari mugatuz. Baina irakurketa konpetentzia lortzeko erarik hoberena irakurzaletasuna sustatzea denez, irakurle berriak eta ohitura sortu eta hobetzetik irakurketa askea, aktiboa, kritikoa eta boluntarioa eskuratzera izango da eskolaren helburua.

Horretarako, ikusmenaren bidez hitzak antzematearen mikroprozesuaren eta ulermenaren makroprozesuaren artean ematen den harremanean oinarritutako prozesu eta ekintza mental honetan, irakaslea bidelaguna izango da. Hirtz-ek (2009) irakasleak irakurketaz gozatu eta aberastu egingo duen ikaslea estimulatzeko jakin behar duela aldarrikatu zuen. Ikaslearen gaitasunetan oinarrituta, haien esfortzu kognitiboa ezagutuz, erronkak jarri eta horiei autonomiko aurre egiteko beharko dituen baliabideak eskainiz, hain zuzen ere.

Beraz, irakasleak irakurzaletasunarekiko gozamina erakutsi beharko du, ikaslearen eredu delarik. *“Los colegios tienen que desarrollar la pedagogía de los sentimientos, para que esto sea posible, es necesario que un maestro se emocione con las lecturas, que tenga interés por conocer. La mejor forma de transmitir el gusto por la lectura es de cerca, en*

distancias cortas. Los maestros deben ser capaces de contagiar el placer por la lectura” (Centelles, 2006).

Horrez gain, Lage-k (2006) irakurzaletasuna sustatzeko animatzaile on batek eskuratu beharreko baldintzak deskribatu zituen: *“El animador debe de pasar unos requisitos, innatos y adquiridos: ser un buen lector, conocedor de la literatura o eventos relacionados, tener capacidad de trabajo, de improvisación y de comunicación con los niños, ser imaginativo, sensible, paciente, intuitivo, con autoridad e ilusión”*. Beraz, irakasleak egunero irakurketa lantzeko denbora utzi behar du, irakurketa hauek laburrak baina eraginkorrak izan behar dira, ikasleak arreta galdu ez dezan (Soriano, 2005). Horrela, ikasleak irakurtzera animatuko ditu irakasleak irakurketaz disfrutatzen duela ikusiz. Modu berean, irakasleak ikaslearengan espektatiba positiboak izan behar ditu, zuzenki ikaslearen nortasuna eraikitzen eragiten duenak.

Metodologiari dagokionez, ez da irakurketa irakasteko metodologia zehatz eta bakarra existitzen. Hala ere, hainbat urteetan zehar egindako hausnarketa, ikerkuntza, elkartze eta kongresuei esker, objektiboki emaitza onak eman dituztenean Vygotsky-ren (1987) konstruktibismoa gailentzen da.

Ikasle guztien garapenean lagungarria den metodologia hau, irakaslea umearen aurre esperientzia eta gaitasunetatik abiatuta (Garapen Hurbileko Eremua), indibiduo bakoitzaren ezaugarri eta erritmora egokitzen da. Ikaslea motibatzen du, askatasun eta konfiantzazko inguru kontrolatuan ariketak garatuz, eta ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren jabe egiten du etengabeko feedbackaren bidez egindako aurrerapen eta dituen zailtasunei behatuz eta autoebaluazioari erreparatuz. Gainera, beste esparruetan ikaskuntzen garapena praktikan jartzen ikasten du, izan ere, pertsona denak inguru kultural, sozial eta emozionaletan, interakzioaren bidez, garatu eta jokatzeko dutela aldarrikatu zuelako. Horrela, ikasleak elkarlanaren bitartez ikaskuntza berriak eskuratzen ditu (Garapen Potentzialaren Eremua).

Irakurzaletasuna sustatzeko ikasgelan jarduera ezberdinak burutu behar dira, hala nola: egunero ahoz irakurtzea, ipuin kontalarien maratoiak, liburuaren eta irakurlearen arteko harreman afektiboa bultzatzea, IKT-ak irakurtzeko erabiltzea, irakurketa planak eta programak, irakurketa librea egiten uztea... Lehen Hezkuntzako haurrei letra handia, orrialde asko ez izatea eta ilustrazioen bidez imaginazio sustatuko dituzten irudiez josia egotea, istorio sinple, errepikakorrak eta identifikatzaileak izatea gustatzen zaie, esaterako: albumak. *“Otro recurso muy bueno son los álbumes porque priorizan el mensaje visual, ya que la cantidad de imágenes es superior al texto”* (Centelles, 2006). Era berean, modu kreatiboan zein ludikoan burutu daitezkeen ariketa eta jolasak, adibidez: pertsonaien, gaiaren edo

istorioaren marrazkiak, ikasleari arreta deitu dion esaldia irakurtzea, galdera-erantzun jolasak...(Coronas, 2005)

Eskola arloan, irakurzaletasunean lagunduko duen irakurketa ohitura sortzeko, eskolan eta ikasgelan, baita herrian edo auzoan, liburutegia egotea beharrezkoa da non material eta errekurso ezberdinentzako eskuragarritasuna eskaintzeko funtzioa duen. Horrela, ikasle guztiei ezagutza zabaltzeko informazioa erraztuz edota askatasun, amets, fantasia eta adiskidetasun munduan barneratuz: izan ere, Centellesen (2006) aburuz, *“la biblioteca es el corazon de la escuela”*.

Eskolak irakurketa ohitura sortzeaz gain, irakurmenaren bidez jakin mina, ikertzeko nahia eta gauza berriak ezagutzeko grina sustatu behar ditu, testuaren irakurketa zehatzagoa burutzeko asmoz (Hirtz, 2009). Beraz, irakasleri motibatua liburutegiaz eta irakurketa sustatzeko jarduera ezberdinez baliatu behar da eskolan irakurketa ohiturak sortzeko.

Laburbilduz, eskolak ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko paper garrantzitsua jokutzen du. Lehenik eta behin, motibatzen eta irakasten dakiten irakasleen bidez; bigarrenik, eskola edo herriko liburutegiaren bitartez; eta azkenik, irakurketaren animazioarekin loturiko jarduera zehatzak erabiliz, ikaslearen ikaskuntza prozesuan eragina duten partaideekin elkarlana kontuan hartuz.

f. Hezkuntzan tresna berriak: IKTen inklusioa geletan

Cassany (2002) *“la lectura no es algo natural, sino una práctica social que cambia en cada momento de la historia, en cada comunidad y en cada contexto, aunque los textos sean los mismos”*. Gaur egungo teknologia berriek irakurketa egoeran zuzenki eragin dute, irakurtzeko modu ezberdinak luzatuz (irakurketa digitala: testu digitalizatuak, ebook, webtestuak) eta irakurlearen behar, gustu eta lehentasunean oinarrituz zeinak irakurketa ohiturak aldatzen dituen, informazio orokorraren bilketa eta irakurketa partikularra ahalbidetzen duen aldi berean.

Lehenengo liburu digitaliztuek liburu inpresoaren beste euskarri mota bat izan ziren, ondoren bideoa, ahotsa eta irudiak gehitzen joan ziren (grafikoak, audioliburuak, bideoliburuak, mugikorrenzako irakurketa aplikazioak), teknologien aurrerapenekin batera, irakurlearengan esperientzia bakar eta errepikaezina lortuz. Izan ere, irakurleak ekintza ezberdinak burutu eta kontrolatu ditzake irakurketa aberasgarria lortuz.

Hala ere, osasunerako kaltegarria izan daitezkeen arazoak ditu, hala nola, ikusmenenean eta arretan. Hori dela eta, muga batzuk jartzea garrantzitsua da. Izan ere, ipuinak ordezkatzear gain, interakzio uneak desagertzen ari dira. Horregatik, teknologia eta ipuin zein liburuen arteko oreka mantentzea garrantzitsua da (Samaniego, 2015).

Horrela bada, azken urteetan teknologia hazkundearen zabalkundeak irakurzaletasuna sustatzen duten agenteen aukera berriei erreparatzea ekarri du. Tradizionalki erabili diren inprenta, testu eta alfabeto instrumentu eta funtzioak, kasu honetan liburua, eta errekurtsio berrien, ikus entzuneko irudiak, arteko elkarlana sustatu behar da. Ez baita bata ala bestea, biek ikaskuntza aberastu dezakete eta probetxua atera behar zaie.

Gainera, hizkuntzaren erabileran eta arrazonamendu gaitasunetan moldaketak egitea eragin du, ikasleen irakurmen gaitasun eta ohituretan aldaketak ekarri dituen aldi berean. Gizartean nagusitzen diren irudi eta ikurrez jositako iragarkiek, idatzizko testuen gainetik, egiaztapen hau baieztatzen dute. Gil Calvo-ren (2001) aburuz, irakurkeraren desnaturalizaioaz hitz egiten du zeinak irakurketaren kualitatean eragiten duen. Irakurle gehiago egon arren, instrumentala gailentzen da, hau da, informazio iturri gisa irakurtzen da gehiago ezagutza iturri (aberastasun pertsonala, gozamina, munduaren ezagutza, berrirakurketa) bezala baino.

Informaziozko gizartea ala ezagutzaren gizartea? Informazioa kanpotik azkar pilatzen den zerbait da, baina irakurketa konpetentzia gabe ezin da informazio hori berdindu, diskriminatu, auzipetu eta epaitu. Hala ere, ezagutza egituratuta dagoen barnekoa da, ulermen eta inteligentziarekin harreman estua duena, motel hazten dena eta ekintza batera gidatu dezakeena. (Cerrillo, 2005)

Irakurketa aberats, aukerazko eta eskuragarria egitea xede den heinean, ezin da ahaztu teknologia berritzaileek gizartean duten indarra. Mundu digitala aberasgarria eta edukien dibertsitatean oinarritzen denez, testu eta grafikoetatik bideo, soinu eta mugimenduetara luzatzen dena, hobe izango da lehen bailen eta gure onerako, haiekin elkarbizitzen ikasten jakitea, teknologiak geratzeko etorri baitira. Horregatik, errealitate hau ezagutu eta ulertzeko eguneroko ikerketa etengabeak nahitaezkoak dira non guraso, irakasle eta liburutegiek deskribapen eta sailkapen argiak behar dituzten eduki egokienak hautatzen jakin eta manipulazioari aurre egiteko.

4. METODOLOGIA

Atal honetan, Gradu Amaierako Lan hau burutzeko jarraitu den metodologia azalduko da. Horretarako, lehenengo, ikerketaren helburua azaltzen da. Ondoren, ikerketa burutu den testuinguruaren deskribapena ematen da eta, azkenik, datuak biltzeko erabilitako tresnak zehazten dira.

a. HELBURUA

Ikerketaren helburu orokorreki dagokienez, Lehen Hezkuntzan erabiltzen diren irakurketa metodologia ezberdinen analisia eta ikasleen ikaskuntzan duen eragina ikustea, irakasleek haien praktiken inguruan duten pertzeptzioa eta praktikek ikasleen ikaskuntzan duten eragina ezagutzea eta familiek haien seme-alaben irakurketa ikaskuntzan eragina dutela ziurtatzea da.

Helburu zehazetan, berriz, irakurketa ikasketa tresna bezala duen garrantzia azpimarratzea, irakurketa ez egiteak ekarri ditzakeen kalteak, kausak eta onurak deskribatzea eta irakurketaren animazioa zer den eta nork egiten dituenaren behar dituen gaitasunak azaltzea aurkitzen dira.

b. TESTUINGURUA

Ikerketa honen parte hartzaile nagusia Nafarroako Ibarberri ikastetxea da. Ibarberri ikastetxea D ereduan irakasten duen eskola publikoa da, hau da, ikasgai guztiak euskaraz eman arren, Ingelesa eta Gaztelera ikasgaietan ingelesez eta gaztelaniaz hitz eta lan egiten dute.

Eskola hau, zehazki, Lekunberri izeneko herri txiki batean kokatuta dago zeinak Larraun bailarako eta Lekunberriko ikasleak jasotzen dituen. Hori dela eta, beraien inguru soziolinguistikoa euskalduna da, nahiz eta hizkuntza aniztasuna ezin den ahaztu, kontuan hartuta familia batzuen ama hizkuntza gaztelania dela. Horrez gain, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko hezkuntza zerbitzua dauka.

Ikerketa honetan, Lehen Hezkuntzako etapa osatzen ari diren ikasleetan oinarrituta burutuko da. Lehen Hezkuntzako etorkizuneko irakasle gisa, etapa honetan irakurketak duen eraginaren errealitatearen irudikapen adierazgarriagoa eta esanguratsuagoa izan dadin. Beraz, ikerketak, osotara, Lehen Hezkuntzako 21 ikasle, 42 guraso eta 4 irakasleetan oinarrituta burutuko da.

Azkenik, eskolan irakurzaletasuna sustatzeko hainbat jarduera burutzen dituzte, hala nola: irakurtzen ikasteko elkarrizketaz baliatzen diren tertulia literarioak; tutore irakurle proiektua, non euskara lantzeaz gain, adin ezberdinen arteko harremana bultzatu eta hobetzen duen, errespetuan eta elkarlanean oinarrituz; senideen arteko harremana indartu, momentu zoragarria igaro eta euskal kultura hedatzeko Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek motxila ibiltaria astero etxera eramaten dute, zeina ipuin zein jolas didaktiko interesgarriz hornitua dagoen; euskara eta gaztelania ikasgaietan bikotekako irakurketa burutzen dute eta liburuaren eguna ospatzen dute; eta azkenik, talde elkarreragileak burutzen dituzte, ikasle, irakasle eta familiaren arteko elkarlanaren bidez ikasleek ikaskuntza esanguratsua lortzeaz gain, asko disfrutatzen dute.

c. DATUAK JASOTZEA

Ikerketa burutzeko, google formulario bidezko 3 galdetegi erabili dira: bata ikasleentzako, bestea gurasoentzako eta azkena irakasleentzako:

1. *Tabla: Ikerketaren lagina.*

Informazio bilketarako instrumentua	Inplikazioa
- Ikasleei galdetegi itxia	Ibarberri ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleei luzatutako inkesta. Ondoren, erantzunak plazaratu eta aztertuko dira familiek zein irakasleek irakurketa ikas-prozesuan eragina dutela ziurtatzeko.
- Familiei galdetegi itxia	Ibarberri ikastetxeko Lehen Hezkuntzan seme-alabak dituzten gurasoei luzatutako inkesta. Ondoren, erantzunak plazaratu eta aztertuko dira beraien seme-alaben irakurketa ikaskuntza prozesuan eragin zuzena dutela frogatzeko (parte hartzea, inplikazioa eta hauen ikasketa maila kontuan hartuz).
- Irakasleei galdetegi irekia	Ibarberri ikastetxeko Lehen Hezkuntzako irakasleei luzatutako inkesta. Ondoren, erantzunak plazaratu eta aztertuko dira irakurketa lantzeko metodologia ezagutuz eta ikasleengan duten eragina behatuz.

Iturria: Lanketa propioa.

Erabilitako lagina ez da halabeharrezkoa izan, Ibarberri ikastetxean Practicum III-a esperimentatu ondoren, behaketa eta hainbat irakasleri egindako elkarrizketetan oinarrituz, irakurzaletasuna sustatzeko burutzen dituzten jardueren berri neukan.

Beraz, nire onurarako erabilia izango den nahitazko lagina erabili da, eta ez probabilitatean oinarritutakoa. Horrela, inkesten bidez irakasleek irakurketan erabiltzen dituzten metodologiaren informazioa jasotzeaz gain, marko teorikoan aipatutako puntuak egiaztatzen direla frogatuko da.

Rodriguez, Gil eta García (1999) galdetegi zera dela diote: *“una forma de encuesta caracterizada por la ausencia del encuestador que supone un interrogatorio en el que las preguntas establecidas de antemano se plantean en el mismo orden y se formulan con los mismos términos”*. Autore hauek dioten bezala, estrategia oso erabilgarria eta etekintsua da denbora urrian ahalik eta erantzun gehien lortzea ahalbidetzen duelako.

Hori dela eta, irakurzaletasuna sustatzeari dagokionean, ikasle, familia eta irakaslearen papera ikertzeko teknika ona dela uste dut. *“Los cuestionarios son aplicables a muestras numerosas de sujetos y plantean preguntas cuidadosamente adaptadas a respuestas predeterminadas”* (Walker, 1989).

Era berean, alde negatiboa ere baduela diote. Izan ere, askotan galdetegiak ez dira osatzen inkesta sortu duen eta erantzun behar duenaren artean harreman zuzenik existitzen ez delako. Hala ere, Ibarberri ikastetxeko ikas komunitatearen parte hartzea nahikoa izan da datuak aztertzerako garaian.

Hasteko, ikasleei luzatutako inkestaren galderak lanketa propioz egin dira. Ikasleei haien adina, Lehen Hezkuntzako maila eta nazionalitatea galdetu ondoren, 15 galderaz osatutako galdera interesgarri eta motzei erantzun diete, galderaren arabera halako erantzun aukerak zituztelarik. Hurrengo taulan proposatutako galderak eta aukera posibleak aurki daitezke:

2. *Tabla: Ikasleei inkesta.*

GALDERAK	ERANTZUNAK			
Eskolara joatea gustatzen zaizu?	Askotik	Normal	Gutxi	Ez
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzen dakizkizu?	Bai		Ez	
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzen dituzu?	Egunero	Askotan	Noizbait	Inoiz
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzean disfrutatzen duzu?	Bai		Ez	

Familien eta irakasleen papera ikasleen irakurzaletasuna sustatzen

Nork bultzatzen dizu irakurketa egitera?	Irakasleak	Familiak	Lagunak	Publizitate iragarkiak	Inork ez
Irakasleak zuri ipuinak irakurtzen al dizkizu? Eta zuk berari?	Bai		Ez		
Irakasleak zuri ipuinak irakurtzea gustoko duzu? Eta zuk berari irakurtzea?	Bai		Ez		
Ikasturte honetan zehar, zure inizatibaz libururik irakurri duzu edo denak derrigortuak izan dira?	Nire Inizatibaz	Derrigorrezko irakurketa		Biak	
Zenbat liburu irakurri dituzu, zuk nahi zenuelako, ikaskurtean zehar?	0	1	2	3	4+
Zenbat liburu irakurri dituzu aurreko udako hilabeteetan zehar?	0	1	2	3	4+
Etxean liburuak (ipuinak, komikiak, aldizkariak...) dituzu?	Asko	Nahikoa	Batzuk	Gutxi	
Familiako norbaitek zuri ipuinik irakurtzen al dizkizu? Eta zuk beraiei?	Bai		Ez		
Zure familiako norbaitek zuri ipuina irakurtzea gustoko duzu? Eta zuk beraiei irakurtzea?	Bai		Ez		
Zein da irakurketak zure aisialdian hartzen duen garrantzia?	Asko	Normal	Nahikoa	Gutxi	Ezer
Denbora berdina eskaintzen dizkiozu irakurketari eta Informazio eta Komunikazio Teknologiai, haien artean oreka mantenduz?	Bai	Irakurketari denbora gehiago eskaintzen diot		IKTei denbora gehiago eskaintzen diot	

Iturria: Lanketa propioa.

Familien inkestaren galdera ugari Vance, Smith eta Murillok (2007) burututako ikerketan oinarriturik egin dira. Familiei adina, seme-alaba kopurua, ikasketa maila, lanbidea eta nazionalitatea galdetu zitzairen lehenengo, eta inkesta norik bete duen (amak, aitar edo tutore legalak) amaieran. Horrez gain, galdetgia 12 galderez osatua zegoen, zeintzuk aukerazko 4 erantzun posible zituzten, ondoren dagoen taulan ikusgai daudenak:

3. *Tabla: Familiei inkesta.*

GALDERAK	ERANTZUNAK			
	Asko	Arruntki	Gutxi	Ezer
Eskolara joatea gustatzen zitzaidan txikia nintzenean?	Asko	Arruntki	Gutxi	Ezer
Txikia zinenean liburuak, komikiak, aldizkariak... irakurtzen nituen?	Erregulariki	Askotan	Noizbait	Inoiz
Liburu asko nituen etxean?	Asko	Nahikoak	Batzuk	Gutxi
Zure iritziz, zein da zure irakurmen maila?	Oso altua	Altua	Erdi maila	Baxua
Nire seme-alabei laguntzen al diet etxekolanekin?	Asko	Arruntki	Gutxi	Ezer
Nire seme-alabari ipuinak irakurtzen dizkiot?	Sarritan	Askotan	Noizbait	Inoiz
Nire seme-alabak liburuak, aldizkariak, komikiak... irakurtzen ditu?	Sarritan	Askotan	Noizbait	Inoiz
Nire seme-alabari liburuak eta aldizkariak erosten dizkiot?	Sarritan	Askotan	Noizbait	Inoiz
Nire seme-alabekin liburutegira joaten naiz?	Sarritan	Askotan	Noizbait	Inoiz
Zure iritziz, zein da zure seme-alabaren irakurmen maila?	Oso altua	Altua	Erdi maila	Baxua
Gaur egun, irakurmenarekiko zure zaletasuna da:	Oso altua	Altua	Erdi maila	Baxua
Liburutegiaz baliatzen zara liburuak hartzeko?	Sarritan	Askotan	Noizbait	Inoiz

Iturria: Lanketa propioa.

Irakasleei zuzenduriko galdetegi dagokionez, Lehen Hezkuntzako irakasleek irakurketaren inguruan duten ikuspegia eta esperientzia, irakurmena lantzeko erabiltzen dituzten metodologiak ezagutzea, familia zein lankideekin duten koordinazioaren berri izatea eta ikasgelan dibertsitateari ematen dioten arreta jakitea helburu zuenez, 4 galdera sailkatuetan banatutako eta erantzun irekien aukeraz osaturikoa bidali zitzairen:

4. *Tabla: Irakasleei galdetegia.*

SAILKAPENA	GALDERAK
Irakurketa lantzeko metodologia	<ul style="list-style-type: none"> -Zer da zuretzako irakurketa? -Haur Hezkuntza amaitzerakoan ikasleek irakurtzeko gai izatearen helburua dago? -Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan aurkitzen diren hurrek irakurtzen dakite? -Irakasle gisa jarduten duzun mailan (idatzi mesedez) irakurketa bultzatzeko metodologia izendatu, garapena azaldu eta erabilitako materiala deskribatu (teknologiaren erabilpenarik?) labur-labur. -Irakasle gisa, betidanik metodologia horri jarraitu diozu? Horrela ez bada, ze metodologia erabili duzu?
Irakasle eta familien harremana	<ul style="list-style-type: none"> -Zure ikasleen familiekin harremanetan egotea garrantzitsua dela uste al duzu? -Nola mantentzen duzu harremana haiekin? -Ze gai lantzen dituzu? - Erlazio ona izan duzu gurasoekin? - -Haien seme-alaben ikaskuntzan inplikatzeko dira? -Interesatzen zaigun gaian zentratuz (irakurketa) eskolan irakurketa bultzatzeko metodologiaren inguruko interesa plazaratzen dute? -Zure ustez, ikasleak irakurtzera estimulatu dituzte?
Irakasleen arteko harremana	<ul style="list-style-type: none"> -Lehen Hezkuntzan eskolako irakasle guztiek irakurketa metodologia bera lantzen dute? -Ikasgelan sorturiko arazo baten aurrean beste irakasle kideari laguntza eskatzen zaio elkarrekin erronkari aurre egiteko? -Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan artean jarraitasun eta kolaborazioa existitzen al da? -Kriterio pedagogikoa aplikatzean aske sentitzen al zara?
Ikasgelan arreta dibertsitateari	<ul style="list-style-type: none"> -Irakurketari dagokionean, nola uste duzu behar ezberdinak dituzten haurren integrazioa hobetuko zela? -Ikaskide guztiek jarduera bera burutzen dute edo material alternatiboa erabiltzen dute? -Ikasle aurreratuekin jarduera extrarik egiten al duzu?

Iturria: Lanketa propioa

Galdetegietan parte hartu duten pertsonen informazioa helarazteko, Ibarberriko ikastetxearekin kontaktuan jarri nintzen. Email baten bitartez, ikerketaren helburua azaldu nien eta behin haiek baimena ematean, ikas komunitatean zehar galdetegiak zabalduko zituztela zin egin zidaten (1. Eranskina). Horretarako, 3 asteko epea utzi nien eta beraz bitarte horretan lorturiko emaitzak deskribatuko dira hurrengo atalean.

d. EMAITZAK

Jarraian, ikerketan egindako galderei erantzundako emaitzak plazaratzen dira: Hasteko, ikasleen lagina ikertuko da. Galdetegian parte hartu duten ikasleen adin eta nazionalitateari dagokionez, 6 eta 12 urte bitarteko ikasle euskaldunak dira. Hurrengo taulan ikusgai dagoena:

5. Tabla. *Ikasleen adina eta parte hartze kopurua*

ADINA	6	7	8	9	10	12
IKASLE KOPURUA	1	3	10	3	2	2

Iturria: Lanketa propioa.

Horrez gain, ikasleen artean zabaldutako galdetegian lorturiko erantzunen maiztasuna eta portzentaia, modarekin batera, adierazten duen tabla ere egin da:

6. Tabla: *Ikasleen inkestaren erantzunak.*

GALDERAK	Erantzunak (maiztasuna): %
Eskolara joatea gustatzen zaizu?	<u>Asko (14): %66,7</u> Normal (5): %23,8 Gutxi (2): %9,5
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzen dakizkizu?	<u>Bai (21): %100</u>
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzen dituzu?	Egunero (6): %28,6 Askotan (7): %33,3 <u>Noizbait (8): %38,1</u>
Ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzean disfrutatzen duzu?	<u>Bai (17): %81</u> Ez (4): %19
Nork bultzatzen dizu irakurketa egitera?	Irakasleak (9): %30 <u>Familiak (10): %55</u> Lagunak (2): %10 Publizitate iragarkiak (1): %5


Irakasleak zuri ipuinak irakurtzen al dizkizu?	<u>Bai (15): %71,5</u> Ez (6): %28,5
Eta zuk berari?	- Bai (10): %49 <u>Ez (11): %51</u>
Irakasleak zuri ipuinak irakurtzea gustoko duzu?	<u>Bai (17): %81</u> Ez (4): %19
Eta zuk berari irakurtzea?	<u>Bai (16): %76</u> Ez (5): %24
Ikasturte honetan zehar, zure inizatibaz libururik irakurri duzu edo denak derrigortuak izan dira?	Nire inizatibaz (4): %19 Derrigorrezko irakurketa (4): %19 <u>Biak (13): %62</u>
Zenbat liburu irakurri dituzu, zuk nahi zenuelako, ikaskurtean zehar?	0 (1): %4,8 2 (2): %9,5 3 (5): %23,8 4 (5): %23,8 <u>6+ (8): %38,1</u>
Zenbat liburu irakurri dituzu aurreko udako hilabeteetan zehar?	0 (3): %14,3 1 (3): %14,3 <u>2 (5): %23,8</u> 3 (3): %14,3 4 (1): %4,8 5 (1): %4,8 <u>6+ (5): %23,8</u>
Etxean liburuak (ipuinak, komikiak, aldizkariak...) dituzu?	<u>Asko (17): %81</u> Nahikoak (4): %19
Familiako norbaitek zuri ipuinik irakurtzen al dizkizu?	<u>Bai (16): %76</u> Ez (5): %24
Eta zuk beraiei?	<u>Bai (13): %62</u> Ez (8): %38
Zure familiako norbaitek zuri ipuina irakurtzea gustoko duzu?	<u>Bai (19): %90,5</u> Ez (2): %9,5
Eta zuk beraiei irakurtzea?	<u>Bai (15): %71,5</u> Ez (6): %28,5
Zein da irakurketak zure aisialdian hartzen duen garrantzia?	Asko (1): %4,8 Normal (3): %14,3 <u>Nahikoa (8): %38,1</u>

	Gutxi (7): %33,3 Ezer (2): %9,5
Denbora berdina eskaintzen dizkiozu irakurketari eta Informazio eta Komunikazio Teknologiei (IKT), haien artean oreka mantenduz?	Bai (4): %19 Irakurketari gehiago(3): %14,3 <u>IKTei gehiago (14): %66,7</u>

Iturria: Lanketa propioa.

Gurasoen laginean, berriz, 42 erantzun jaso dira. Hurrengo histograman behatu daiteke aita, ama eta tutore legalen adina 36 eta 53 urteen artekoa dela, eta parte hartzaileen artean 42 urte dituztenak nabarmenentzen direla.


1. *Grafikoa: Gurasoen adin-maiztasuna.*



Iturria: Lanketa propioa

Ikerketaren inkestan aitak, amak edota tutore legalak osatu duen galdetzean, ondoren aurkitzen den barragraman maiztasuna ikus daitezke. Horrela bada, galdetegia bete duten erantzuleen artean, 37 amek bete dutela azpimarratzekoa da, 5 aiten aurrean.

2. Grafikoa: Gurasoen galdetegiaren erantzuleak




Iturria: Google Formularioa.

Gurasoen ikasketak zeintzuk diren islatzen dituen grafikoari erreparatuz gero, erantzuleen %45,2-ak unibertsitateko ikasketak burutu dituela gailentzen da, %26,2-k goi mailako ikasketak egin dituzten eta %11,9-k oinarrizko ikasketak amaitu dituzten datuek atzetik jarraitzen diotelarik.

3. Grafikoa: Gurasoen ikasketak.

IKASKETAK / ESTUDIOS

42 respuestas



Iturria: Google Formularioa.

Haur kopuruaren arabera, 2 haur dituzten gurasoak nagusitzen dira (21), 3 seme-alaba dituzten gurasoez (11) eta ume bat duten aita eta ametak (10) jarraitua. Eta azkenik, inkestatuak izan diren nazionalitateari dagokionez, guraso gehienak euskaldunak/españolak direla azpimarratzekoa da, nahiz eta Kolombiako ama batek ere erantzun duen. Eta ondoren, familiei eginiko 15 galderen erantzunak eta maiztasunaren, modarekin batera, taula arkitu daiteke:

7. Tabla: Familien inkestaren erantzunak.

GALDERAK	Erantzunak (maiztasuna): %
Eskolara joatea gustatzen zitzaidan txikia nintzenean?	Asko (10): %23,8 <u>Arruntki (27): %64,3</u> Gutxi (2): %4,8 Ezer (3): %7,1
Txikia zinenean liburuak, komikiak, aldizkariak... irakurtzen nituen?	Erregulariki (11): %26,2 Askotan (13): %31 <u>Noizbait (14): %33,3</u> Inoiz (4): %9,5
Liburu asko nituen etxean?	Asko (12): %28,6 <u>Nahikoak (16): %38,1</u> Batzuk (8): %19 Gutxi (6): %14,3
Zure iritziz, zein da zure irakurmen maila?	Oso altua (8): %19 <u>Altua (21): %50</u> Erdi mailakoa (11): %26,2 Baxua (2): %4,8
Nire seme-alabei laguntzen al diet etxekolanekin?	<u>Asko (21): %50</u> Arruntki (15): %35,7 Gutxi (6): %14,3
Nire seme-alabari ipuinak irakurtzen dizkiot?	Sarritan (11): %26,2 Askotan (13): %31 <u>Noizbait (16): %38</u> Inoiz (2): %4,8
Nire seme-alabak liburuak, aldizkariak, komikiak... irakurtzen ditu?	Sarritan (6): %14,3 Askotan (17): %40,5 <u>Noizbait (19): %45,2</u>
Nire seme-alabari liburuak eta aldizkariak erosten dizkiot?	Sarritan (8): %19 <u>Askotan (24): %57,2</u> Noizbait (10): %23,8
Nire seme-alabekin liburutegira joaten naiz?	Sarritan (5): %11,9 Askotan (8): %19 <u>Noizbait (24): %57</u> Inoiz (5): %11,9
Zure iritziz, zein da zure seme-alabaren irakurmen maila?	Oso altua (3): %7,2 Altua (14): %33,3 <u>Erdi mailakoa (17): %40,5</u> Baxua (8): %19

Gaur egun, irakurmenarekiko zure zaletasuna da:	Oso altua (10): %23,8 Altua (12): %28,6 <u>Erdi mailakoa (14): %33,3</u> Baxua (6): %14,3
Liburutegiaz baliatzen zara liburuak hartzeko?	Sarritan (3): %7,1 Askotan (7): %16,7 <u>Noizbait (26): %61,9</u> Inoiz (6): %14,3

Iturria: Lanketa propioa.

Lehen Hezkuntzako irakasleei luzatutako inkestari begira (2. *Eranskina*), non irakurketa eta irakurzaletasuna sustatzeko metodologiarekin zerikusia duten galderei erantzun behar zieten, 4 irakasleren erantzunak jaso dira: Lehen Hezkuntzako 1. mailako 2 irakasleenak, 3. mailako irakasle batena eta 5. mailako beste irakasle batek erantzun dutelarik.

Irakasle hauen aburuz, irakurketa termino oso orokorra eta prozesu luzea dela diote. Hala ere, oinarritzko mekanika oso ondo ikastea berebizikoa ikusten dute, hau da, hizkien soinuak ezagutzea eta identifikatzea. Horrela, ikasleek kontzientzia fonologikoa barneratzea lortuko dute, irakurketa arrakastatsuagoa lortuz.

Alabaina, irakurtzen eta idazten jakitea ez da Haur Hezkuntzako etaparen helburua, baizik eta irakurketari hurbilpen bat egitea da: helduek irakurtzen diotenean irakurketaz gozatzea eta irakurketa ikasteko zein gauzak ulertzeko tresna paregabea dela ohartaraztea da. Ikasle bakoitzak bere garapen eta erritmoa duela errespetatzen da, nahiz eta pixkanaka saiakerak egiten joango diren. Lehen Hezkuntzako zikloan irakurtzen hasiko dira eta 3. mailan irakurtzen baldin badakite ere, askotan irakurtzen duten hori ulertzea kostatzen zaie oraindik: mantso irakurtzen edo tratatzen direlako...eta hori ulermenean traba bat da. Hala eta guztiz ere, irakurketa bizitza osorako zerbait denez, mundua ezagutu eta gozatzeko aukera handiak eskaintzen dituela aldarrikatzen dute.

Hori dela eta, irakurzaletasuna sustatzeko erabiltzen duten metodologiaz galdetzean, talde bakoitza ezberdina denez aurkitzen diren mailaren arabera egokitzen direla erantzun dute. Lehen Hezkuntzako 3. mailan, adibidez, bikotekako irakurketak, tutore-irakurle eta tertuliak bideratzen dituzte. Horrela, umeei irakurritakoa beste norbaiti azaltzeaz gain, ideia ezberdinak partekatzen dituzte, munduaren ikuspegi zabala lortuz. Gainera, aldaketa fasean daudela ere aipatu dute: Ikastetxea ikas komunitate bilakatzen ari den prozesu honetan txokoen bidezko elkarlana sustatzen dute. Beraz, gela 4 txokotan bereizi ohi dute: inprentazko testu mota ezberdinak lantzeko, lan koadernoak edo mahai jolasak, ahozko

aurkezpenak prestatzeko eta teknologia erabiliz irakurketa lantzeko programa ezberdinez baliatzen direlarik.

Lehen Hezkuntzako 5. mailan ere ekintza berdinak jorratzen dituzte eta irakasleak irakurketa modu interesgarri eta aberasgarrian lantzen dela esan badu ere, ikasleei irakurketa prestatu aurretiko prozesua pisutsua egiten zaiela aitortu du, eta ondorioz, irakurketa desatsegina iruditu dakieke, nahiz eta irakurtzen asko disfrutatzen dutela nabarmentzekoa den.

Horrez gain, irakasle guztiak bat datoz ikaslearen familiarekin harremana izatea funtsezkoa dela eta guraso gehienak eskolan erabiltzen diren metodologiarekiko interesa erakusten dutela. Tutore-irakurle eta tertulia literarioak seme-alabekin prestatzen dituztenez, ikasleak motibatuagoak egoten dira proiektu hauetan haien ekarpena egiteko. Harreman hau sendotzeko, astero talde elkarreragileak burutzen dira, non gela 4 talde heterogeneoetan sailkatuta dagoen eta ikas komunitateko partaideak haien seme-alaben ikaskuntza prozesuan inplikatzeko eragiten duen. Gainera, guraso orok bere seme alabak irakurtzen ikastea nahi izaten dute eta beraz etengabeko kontaktua mantentzen dute korreoz, telefonoz, modu presentzian... Haur bakoitzaren behar, nahi, interes, erritmo eta maila kontuan hartuta, irakurtzera animatzeko estrategia eta laguntzak elkartrukutzen dituzte.

Bestalde, Ibarberri ikastetxean irakasleen arteko harremana ona dela ziurtatu dute. Irakasle orok irakurketarekin zerikusia duten programa guztiak koordinazioaren bidez eramaten dituzte aurrera eta bertan eskolako maila guztiak sartzen dira: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehenengo zikloa. Ikasgelan, irakurketa lantzeko beste jarduera bat burutu eta arrakastatsua sortaraziko balitz, irakasleen artean komunikatua izaten da, eta arazoren bat izanez gero, laguntza eskatzen diote elkarri. Haatik, irakasle bateri asko gustatuko litzaioke tarteka beste irakaslearen praktika zuzenean ikusi eta ideia berriak hartzeko aukera izatea. Azkenik, irakasleak aske sentitzen dira beraien kriterio pedagogikoa aplikatzerako orduan.

Amaitzeko, dibertsitatearen giltzarria elkarrekintzak direla aldarrikatu dute, egunero bai ikastetxean bai etxean landu beharreko baloreak barneratzearekin batera, noski. Izan ere, ikasleak elkar errespetatzen badira, gauzak askoz errazago egiten eta lortzen dira, zer esanik ez bakoitzaren autoestimuan eta motibazio positiboa mantentzen laguntzen duen aldi berean. Gainera, ikastetxeko Pedagogo Terapeutikoa eta Logopedaren zerbitzuak ere erabili ohi izan dira. Helburua ikasle guztiak talde osoko dinamikan sartzeko denez, talde txikitik lan egiten dute errespetua, solidaritatea eta konfiantza lortuz, hala nola: aurretik aipatutako talde elkarreragileak.

e. DATUEN AZTERKETA

Ikerketan lortutako datuen azterketari eman zaion tratera azterketa kuantitatiboa zein kualitatiboa izan da. Galdetegiei esker, non erantzun itxi zein irekikoak izan diren, ikasgelako errealitateari buruzko ikuspegi errealista lortzeko balio izan du, ikasleen pentsamenduak ezagutu diren aldi berean. Beraz, atal honetan, aurretik eskuratutako emaitzen interpretazioa egingo da, marko teorikoan idatzitakoarekin lotura bermatuz.

Lehenik eta behin, Nafarroako Foru Komunitatea Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duen 60/2014 foru dekretuak, irakurketa bizitzarako tresna oso garrantzitsua dela azpimarratzen denean, bai ikasle bai familia zein irakasleak kontzientziatuta daudela esan beharra dago. Izan ere, aurretik aipatutako zenbait ikerketek, non familien ikasketek ikasleen irakurmen mailan eragin zuzena dutela baieztatzen duten, Ibarberri ikas komunitatean islatua ikusten da:

Alde batetik, ikasleen inkestaren erantzunei erreparatzen bazaio, galdetegian parte hartu duten Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek irakurtzen dakitela adierazi badute ere, heren luze batek noizbait bakarrik egiten duela aitortu du. Dena dela, gehienek irakurtzean gozatzen dute, %20 izan ezik. Beste aldetik, familien galdetegian, haien seme alabek askotan eta noizbait irakurtzen dutela erantzunak gailentzen dira. Horrez gain, inkestan parte hartu duten familien %50ak seme-alabei etxekolanekin laguntzen dietela eta %38ak noizbait ipuinak irakurtzen dizkietela esan dute, %31ak askotan egiten duela erantzunez. Haatik, etxekolanekin konparatuz gero, ipuinak irakurtzean apur bat gutxiago inplikatzeko direla nabarmentzekoa da (%57,2 asko edo sarritan, %42-k noizean behin edo inoiz ez), irakurketak beste jarduerak bezain hainbesteko garrantzia ez duela agerian utziz. Azkenik, irakasleak kontziente dira irakurketa mundua ezagutu eta ulertzeko erreminta berebizikoa dela.

Bigarrenik, familiek haien seme-alabetan irakurzaletasuna sustatzen paper garrantzitsua jokatzen dutela frogatu da. Hasteko, ikasleen %55ak irakurketa familiar bultzatua egiten dutela erantzun dute, ikasleen %30ak irakasleak animatzen dietela, %10ak lagunen gomendioz eta %5ak publizitate iragarkietan ikusitakoaz burutzen dutela esan dute. Beraz, familia eta eskolaren eragina garrantzitsua bada ere, gizarteko beste agenteek ere zer esana dutela nabarmentzekoa da. Bestalde, ikasleei ea familiako norbaitek ipuinak irakurtzen dizkion (%76 bai) eta ea gustuko duten (%90,5 bai) galdetean, baiezkoa nagusitzen da umeak helduari irakurtzea gutxiago ematen delarik (eskolan %50-k inoiz ez erantzun du). Egoera honek adinarekin harreman estua dauka: haurra txikia denean, guraso

zein irakasleak gehiago irakurtzen dio eta, aldiz, umea zaharragoa den heinean, irakurketa gutxiago lantzen dela ikus daiteke.

Halaber, ikasle erantzuleen %81ak etxean liburu asko dituztela aldarrikatu dute, familiei galdera bera botatzean, %38,1ek nahikoak eta %28,6ak asko dituztelaren datuekin zerikusia dutena, baita guraso irakurleak dituztela ondorioztatu daiteke. Gainera, guraso gehienak (ama), goi-mailako ikasketak osatu dituztela kontuan hartuta (%67-k), txikitan askotan eta noizbait irakurtzen zutela erantzun dute, eta ondorioz, beraien irakurmen maila altua dela deritze. Horrez gain, haien seme-alabei askotan aldizkariak erosten dizkietela adierazi dute, nahiz eta haien seme-alaben irakurmen maila galdetzerakoan, gehienek erdi mailakoa dela uste duten. Hau zuzentzeko etxeko lan gutxiago eta irakurzaletasuna gehiago bultzatzea hobe izan litekela pentsa genezake. Horregatik, irakurketaren irakaskuntza prozesua familiara mugatzen ez dela esan daiteke, eta eskolarekin elkarlana egitea beharrezkoa dela agerian uzten da.

Azkenik, Lehen Hezkuntzako irakasleek irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa ohitura bat sortzea garrantzitsua ikusten dute. Hori dela eta, Haur Hezkuntzan helburu hori ematen bada ere, Lehen Hezkuntzan aurretik aipatutako hainbat metodologia erabiltzen dute irakurketa ohitura sortzen eta sustatzen jarraitzeko. Beraz, eskolarentzat irakurmena lehentasuna dela esan genezake metodologia eta material anitz erabiltzeaz gain, erabakiak taldeka eta maila zein etapa ezberdineko irakasleak koordinaturik hartzen dituzte. Nahiz eta lankideen praktikak zuzenean ikusteko hutsunea dutenez, irakasleek irakurzaletasuna binaka, taldeak batuta edo aldatuta lantzea interesgarria izango litzateke.

Horrela bada, ikasleei irakasleak ea liburuak irakurtzen dizkien (%71,5 bai) eta ea gustuko duten (%81 bai) galdetzean, ikasle gehienek baiezkoa erantzun dute. Gainera, erantzuleen %81ak ipuinak, komikiak, aldizkariak, liburuak... irakurtzen disfrutatzen dutela esan dute, eta beraz, aurretik esandakoa ziurtatzen da, baita irakasleak ikasleentzako jarraitzeko ereduak direla ere.

Hala ere, liburutegia ez da oso baloratua ikas komunitate honetan. Irakasleei egindako galdetegian, ez da liburutegi hitza aipatu. Familiei haien seme-alabekin liburutegira joaten diren galdetzean, %57ak noizbait joaten direla erantzun dute eta liburuak hartzeko liburutegiaz baliatzen diren galderari %61,9k noizbait erantzun dute. Hau da, erantzuleen erdiak baino gehiago ez da sarritan liburutegira joaten, eta horrek, haien seme-alabak liburutegira joateko ohitura ez hartzea eragin dezake. Hori dela eta, eskolak liburutegiaren erabilera bultzatzea ezinbestekoa da: eskola orduetan erabiliz, liburu mailegua bultzatuz, liburutegiak antolatutako ekintzen berri gurasoei emanez...

Bukatzeko, ikasturtean zehar eta iazko udako garaian irakurritako ikasleen liburu kopuruen erantzunei erreparatuz gero, derrigorrezko irakurketaren garrantzia azpimarratzekoa da inizatiba propioz irakurritako liburuen aurrean, soilik ikasle batek ikasturtean liburu bat ere ez irakurri duela esan baitu eta, orokorrean, udako liburuen kopurua murriztagoa delako.

Gainera, ikasleei irakurketak haien aisialdian hartzen duen garrantzia galderari ikasleen %38-ak nahikoa eta %43-k gutxi erantzun dute. Hori gutxi izango ez balitz, irakurketari eta Informazio era Komunikazio Teknologiei (IKT) denbora berdina eskaintzen dioten galdetzean, laginaren bi herenek pantailei irakurtzeari baino denbora gehiago eskaintzen dietela aitortu dute.

Are gehiago, familiek irakurketarekiko zaletasuna erdi mailakoa dela azpimarratzekoa da, eta ondorioz, agerian geratzen da irakurketa eta IKTei ematen zaion erabilera desorekatua. Hori dela eta, Samaniegok (2015) esan zuen bezala, teknologia eta ipuin zein liburuen arteko oreka mantentzea garrantzitsua da. Izan ere, ikasle gehienek, nahiz eta irakurketaz gozatzen duten, oporretan beste jarduera batzuk gailentzen direlaren errealitatea oso kezagarria baita.

5. ONDORIOAK

Laburbilduz, lan honetan baieztatzen da familiek eta eskolak duten garrantzia ikasleen irakurzaletasuna sustatzen. Izan ere, irakurketa curriculumaren barnean garatu beharreko aspektu garrantzitsuenetarikoa da, hizkuntza eta idazketaren bidez lortu eta hainbat onura dituen: garapen intelektuala garatzen, hizkuntzaren ezagutza, gaitasun komunikatiboa eta baloreak barneratzen laguntzeaz gain, denbora pasa iturri itzela da eta gizartean modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen du, beraz arlo guztietan erabilgarria da.

Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoa da irakurle kritiko eta kompetenteak sortzea, testu ezberdinak irakurtzen jakin eta baliabide ezberdinen bidez ematen den gehiegizko informazioan garrantzitsuena harrapatzeko gaitasuna izatea.

Beste garai batean irakurketa beste pertsonak diskriminatzen zituen jarduera gisa izan zena, indibiduo guztientzako eskuragarri dagoela bezala hartu beharko litzateke. Izan ere, alfabetizatua izatea eskubide unibertsala da gizarte guztietan eta irakurketaren bidez hiritar orok modu autonomoan eta askez gizartean parte hartzeko aukera luzatzen du.

Horretarako, adin txikietatik irakurketa ohiturak eskaintzea berebiziko lana da: era guztietako irakurketak erraztea eta motibatzea, ezer inposatu gabe eta beraien imajinazioan kaltetu gabe, entretenimendurako ekintza gisa, alegia.

Hori dela eta, eskolaren lana da irakurketa menperatzeko behar diren mekanismo sintaktikoak irakasteaz gain, irakurketa ohiturak sortzea ikaslearen behar, interes eta gaitasunak kontuan hartuko dituen irakaslearen bidez. Irakaslearen lana izango da ikasle bakoitzari beharrezko tresnak eskaintzea eta estrategia desberdinak erabiltzea ikasleek irakurtzen ikasi eta oztopo ezberdinei aurre egiten jakiteko. Gainera, prozesu hau ikasleen adin gazteetatik egin behar da, non ikasleek ikasteko gaitasun handiena duten. Hala ere, hau ezinezkoa da familieen elkarlanarik gabe.

Izan ere, familiak zein irakasleak haurraren jarraitze ereduak dira, eta ondorioz irakurketa ohitura bat sortzeko modurik eraginkorrena haiek irakurketarekiko pasioa transmititzea da. Haurrek irakurtzen ikusten badituzte, kuriosidadez imitatzen saiatuko baitira.

Azkenik, lan honi esker, irakurketa gaiaren inguruan neuzkan hutsune pertsonalak asetzea lortu dut, etorkizunean bere irakaskuntzan gaitu naizelarik.

6. MUGAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Etorkizunari begira, ikerketa honek familiek eta eskolak ikasleen irakurzaletasuna sustatzeko jokatzeko duten paper garrantzitsua azpimarratzeko balio du.

Hala ere, ikerketa soilik ikastetxe batean eta Lehen Hezkuntzako etapan oinarriturik burutu delaren muga dauka. Hori dela eta, etorkizuneko ikerketa batean interesgarria izango litzateke parte hartzaile gehiagorekin kontatzea, bai ikastetxe gehiagoren aldetik, zein Haur Hezkuntza eta hezkuntza maila altuagoetan zuzendurikoa. Horrela, ondorio fidagarriagoak eta desberdinagoak aterako ziren. Gainera, ikasleak bere irakurketa ohiturei buruz hausnartzera bultzatuko zen eta, agian, hori bera eskuratzea lortuko zen. Bestalde, behar bereziak dituzten haurren kasua sakonago aztertzea kontsideratzekoa da.

Aspektu positibo gisa, ikerketa hau egiterako orduan irakurketak ikasle, guraso eta irakasleen ikuspuntutik ikertu dela azpimarratzekoa da, eta ez ikuspuntu batetik soilik. Era berean, ikerketa honek ateak irekitzen dizkio ikasleak irakurtzera motibatuak egoteko estrategia erabilgarriak aztertzerako eta ze aspektu eta tresnak ez duten balio edota hobe daitezkeen Lehen Hezkuntzako etapari begira.

7. ERREFERENTZIAK

- 60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16-koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena., 174. *Nafarroako Albistegi Ofiziala*, 2014ko irailaren 5-ekoa, 2-181 orr. Hemendik berreskuratuta: https://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DC9FD764-A71A-4920-851D-24BB2C653B6F/0/F1410295_LehenHezkuntzako.pdf.
- Abril, M. (2000). Lectura y valores. *Puertas a la lectura*, 9-10, 8-12.
- Álvarez, C. (2013). *La animación a la lectura en la Educación Primaria: una innovación posible*. Kantabriako Unibertsitatea, Hezkuntzako Fakultatea.
- Álvarez, C. eta Gutiérrez, R. (2012). Educar en valores a través de un club de lectura escolar: un estudio de caso. *Revista complutense de educación* 24(2), 303-319.
- Blanco, P., Muela, M. C. eta Guillén, M. C. (2012). Lectura e integración social: adolescentes, bebés y abuelos que cuentan, comen y cantan juntos. *Congreso iberoamericano de las lenguas en la educación y en la cultura*. Salamanca.
- Buxarrais, M. R. (1997). *La formación del profesorado en educación en valores. Propuesta y materiales*. Bilbo: Desclée de Brouwer.
- Carratalá, F. (2008). Motivación y desmotivación ante la lectura. *CDL Madrid*, 193, 11-16.
- Carreiras, M (1997). *Descubriendo y procesando el lenguaje*. Madrid: Trotta, 93-112.
- Cassany, D. (2002). Aproximaciones a la lectura crítica: teoría, ejemplos y reflexiones. *Tarbiya. Revista de investigación e innovación educativa*, 32, 113-132.
- Cela, C. J. (1993/03/29). El hábito de la lectura. *ABC*.
- Centelles, J. (2006). *La biblioteca, el corazón de la escuela*. Bartzelona: Octaedro.
- Cerrillo, P. (2007). *Literatura infantil y juvenil y educación literaria*. Bartzelona: Octaedro.
- Cerrillo, P. (2005). La animación a la lectura desde edades tempranas. *Idea La Mancha*, 1, 99-106.
- Cerrillo, P. eta García, J. (1996). *Hábitos lectores y animación a la lectura*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla la Mancha.
- Chaves, A. L. (2002). Procesos iniciales de lecto-escritura en el nivel de Educación Inicial. *Revista electrónica: Actualidades Investigativas en Educación*, 2(1), 1-23.

- Cristóbal, S. (2013). *La metodología de lectoescritura en educación infantil y su influencia en el aprendizaje lectoescritor de los alumnos*. (Masterreko Amaierako Lana). Valladolideko Unibertsitatea.
- Coronas, M. (2005). Animación y promoción lectora en la escuela. *Revista de Educación*, 1, 339-355.
- Cuetos, F., Rodríguez, B. eta Ruano, E. (2004). *Evaluación de los procesos lectores*. Madrid: TEA edizioak.
- Deberty, C. (2011). La lectura: una herramienta de inclusión social. *Boletín ANABAD*. 61(3), 103-112. Hurrengo orrialdetik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4104364>.
- Doman, G. (2008). *Cómo enseñar a leer a su bebé*. Madrid: EDAF.
- Fiz, M. R. et al. (2000). Los hábitos de lectura y su relación con otras variables. Huriarte de San Juan. *Filología y Didáctica de la Lengua*, 5, 7-31
- Flórez, R., Restrepo, M. A. eta Schwanenflugel, P. (2007). *Analfabetismo emergente: investigación, teoría y práctica: el caso de la lectura*. Bogotá: Universidad nacional de Colombia.
- Fons, M. (2004). *“Leer y escribir para vivir”*. GRAO.
- Galeano, E. (1998). *Patatas arriba: La escuela del mundo al revés*. Madrid: Siglo XXI
- García, J. (2005). La promoción de la lectura: una permanente tarea educativa. *Revista de Educación*, 37-51.
- García, A. eta Gómez, R. (2016). Contenidos enriquecidos para niños o las nuevas formas de leer, crear y escuchar historias: una propuesta de clasificación. *Revista chilena de literatura* 94, 173-195.
- Garrido, F. (1999). *El buen lector se hace, no nace*. Mexiko: Ariel.
- Gasol, A. (2005). La familia, modelo e impulsora de la lectura. CLIJ. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil* 182.
- Gil Calvo, E. (2001). El destino lector, VV. AA.-n, *La educación lectora*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 13-26.
- Gispert, D. eta Ribas, L. (2010). *“Alumnado con dificultades en el aprendizaje de la lectura”*. GRAO.
- Gómez, F. (2012). La intervención sistemática. Un nuevo paradigma filosófico y pedagógico. *Intervención sistemática en familias y en organizaciones socioeducativas*, 37-61. Barcelona: Octaedro.
- Gough, P. B. eta Tunmer, W. E. (1986). Decoding, reading and reading disability. *Remedial and Special Education*, 7, 6-10.

- Guardiola, E. eta Baños J. (2017). La lectura ¿influye en nuestra salud?. *Rev Med Cine*, 13(1), 1-2.
- Guillermo, M. (1993). Lectura, Educación y Bibliotecas: Ideas para crear buenos lectores. *Bases para la formación de hábitos lectores*, 83-93. Murtzia: ANABAD.
- Hirtz, B (2009). *Motivar la lectura*. 2020ko ekainaren 4ean hurrengo weborrialdetik berreskuratuta:
<http://buscarempleo.republica.com/formacion/motivar-la-lectura.html> .
- Hoover, W. eta Gough, P. (1990). The simple view of reading. *Reading and writing: An interdisciplinary Journal*, 2, 127-160.
- Ibarberri ikas komunitateko webgunea, 2020ko ekainaren 1ean berreskuratua <https://www.ibarberrieskola.com> orrialdetik.
- Jurado, F. (2008). La formación de lectores críticos desde el aula, *Revista Iberoamericana de Educación*, 46, 89-105.
- Kamhi, A. G. eta Catts, H. W. (1999). Language and Reading: Convergences and Divergences. *Language and reading disabilities*, 1-24. Needham Heights, Mass: Allyn and Bacon.
- Lage, J. J. (2006). *Animar a leer desde la biblioteca*. Madrid: CCS.
- Lázaro, F. (1984/02/12). *El deseo de leer*. ABC, 7 orr.
- Machado, A. M. (2002). *Lectura, escuela y creación literaria*. Madrid: Anaya, 15.
- Marchamalo, J. (2004). El mapa del tesoro. VV. AA.-an: *Anuario sobre el libro infantil y juvenil*. Madrid: SM.
- Mantilla, L. (2009). *Animando a leer. Técnicas para estimular la afición por la lectura*. Sevilla: Eduforma.
- Marina, J. A. eta Válgoma, M. D. (2005). *La magia de leer*. Plaza y Janes Argitaletxeak.
- Mata, J. (2009). *10 Ideas clave. Animación a la lectura: Hacer de la lectura una práctica feliz, trascendente y deseable*. Bartzelona: Graó.
- Matesanz, M. (2012). *La lectura en la educación primaria: marco teórico y propuesta de intervención*. (Gradu Amaierako Lana). Valladolideko Unibertsitatea, Segoviako Fakultatea.
- Mendoza, A. (1998): *Tú lector. (Aspectos de la interacción texto-lector en el proceso de lectura)*. Bartzelona: Octaedro.
- Ministerio de Educación. Secretaría de Estado de Educación y Formación Profesional. Dirección General de Evaluación y Cooperación Territorial. Instituto de Evaluación (2010). *PISA 2009. Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos. OCDE. Informe español*.


- Moreno, E. (2001). Análisis de la influencia de la familia en los hábitos lectores de sus hijas e hijos: un estudio etnográfico. *Contextos educativos*, 4, 177-196.
- Narváez, M. eta Lopez, A. (2011). *Influencia de la familia en el hábito lector*. Granada: CIVEL.
- Osoro, K. (2002). *La animación a la lectura: reflexiones y perspectivas*. Irakurketa Espainian: 307-325.
- Ostria, M. (2005), Enseñar/Aprender a leer. En Cátedra UNESCO para la lectura y la escritura. Concepcioneko Unibertsitatea, Txile.
- Pennac, D. (2001). *Como una novela*. Bartzelona: Anagrama.
- Pérez, Á. (2012). *Educarse en la era digital*. Madrid: Morata.
- Quintanal, J. eta Téllez, J. (2000). Las estrategias de lectura. Concepto y enseñanza. *Enseñanza 17-18*, 27-43.
- Riedel, B. W. (2007). The relation between DIEBELS, Reading comprehension, and vocabulary in urban first-grade students. *Reading Research Quarterly*, 42 (4), 546-567.
- Rodríguez, G., Gil, J. eta García, E. (1999). *Metodología de la investigación cualitativa*. Málaga: Aljibe.
- Romero, F. (2009). Acceso a las competencias básicas educativas desde la lecto-escritura. *Tabanque: Revista pedagógica*(22), 191-204.
- Samaniego, C. (2015). La importancia de la lectura desde una edad temprana. *Revista para el aula – IDEA 15*, 53-54.
- Soriano, M. (2005). *¿Cómo entender la animación a la lectura?*. 2020ko ekainaren 6ean hurrengo orrialdetik berreskuratua: http://www.ite.educacion.es/formacion/materiales/8/cd_2013/m4_3/cmo_entender_la_animacin_a_la_lectura.html .
- Sperber, D. eta Wilson, D. (1994). *La relevancia. Comunicación y procesos cognitivos*. Madrid: Harvard University Press.
- Steiner, G. (2000): *La barbarie de la ignorancia*. Bartzelona: Taller de Mario Muchnik.
- Strommen, L. eta Mates, B. (2004) Learning to love Redding: interviews with older children and teens. *Journal of Adolescent and Adult Literacy*, 48 (3), 188-200.
- Van Dijk, T. A. (2000). El estudio del discurso. *El discurso como estructura y proceso*, 21-66, Bartzelona: Gedisa.
- Vance, C., Smith, P. eta Murillo, L. (2007). Prácticas de lectoescritura en padres de familia. Influencias en el desarrollo de la lectoescritura de sus hijos. *Lectura y vida: Revista latinoamericana de lectura*, XXVIII(3), 6-17.

- Vigotsky, L. (1987). *Historia del desarrollo de las Funciones Psicológicas Superiores*. La Habana: Ed.Científico-Técnica.
- Vieiro, P. eta Gómez, I. (2004). *Psicología de la lectura: Procesos, teorías y aplicaciones instruccionales*. Madrid: Pearson prentice hall.
- Wagner, D. A. (1990). Alfabetización e investigación: pasado, presente y futuro». *Cuestiones sobre alfabetización*, 7. Bartzelona: Cataluñako UNESCO/OIE.
- Walker, R. (1989). *Métodos de investigación para el profesorado*. Madrid: Morata.

8. ERANSKINAK

1. Eranskina: Eskolari baimena eskatzea.

Gradu Amaierako Lanerako laguntza eske Recibidos x

 **Nerea Goldaraz** <nagolane2@gmail.com> 11 may. 2020 14:29 ☆ ↶ ⋮
para IBARBERRI ▾
Aupa kaixo!

Zer moduz joan da itxialdia? Nerea Goldaraz naiz, Ibarberri ikastetxeko ikasle ohia eta aurren nire practicum III-a zuen eskolan jardun dudana ikaslea. Gaurkoan, nire Gradu Amaierako Lanerako (GrAL-a) zuei laguntza eskatzeko idazten dizuet. Izan ere, nire praktikaldian zehar irakurzaletasuna sustatzeko egiten dituzuen ahaleginekin bunditurik geratu nintzen, nire unibertsitateko azken lanak eskolak zein familiek ikasleengan irakurzaletasuna bultzatzeko garrantzia aipimarratzea du helburu. Horrez gain, ikerketa Lehen Hezkuntzako etapan oinarrituta egingo da, etorkizunean adin horietako irakasle gisa lan egin nahi dudanez, bertako errealitatea ezagutzeko eta niretzako adierazgarriagoa izango delaren asmoarekin. Horretarako, hiru galdetegi mota ezberdin prestatu ditut, zuek ados egonez gero, Ibarberriko Ikas komunitatean zabaldu eta Lehen Hezkuntzako irakasle, familia zein ikasleek bete ditzaten.

Hona hemen galdetegiak:


Lehen Hezkuntzako **ikaslea** (euskaraz) : <https://forms.gle/7PZupKT8aoajMruB8>
Lehen Hezkuntzako **familia** (euskaraz eta gaztelera) : <https://forms.gle/Yg77E1S4vboUzVvY6>
Lehen Hezkuntzako **irakaslea** (euskaraz) : <https://forms.gle/jor3XXSEUoe5i62a7>

Azkar egiten diren galdetegiak dira, eta ondorioz, **ekainak 1**erako zuek galdetegiak osatua izatea gustatuko litzaidake, nik erantzunak aztertzeko denbora izateko. Horrez gain, anonimoak eta konfidentzialak dira, ikerketa honetan soilik erabiliko direnak hain zuzen ere. Nahi izanez gero, emaitzak edota nire lana zuekin partekatu ditzazket, zuek ere eskolak eta familiek ikasleen irakurzaletasunean duten paper garrantzitsua ikusteko.

Niretzako oso lagungarria izango den lana da eta horregatik ikerketan parte hartzeri animatzen dizuet, ekaina iristerako tartetxo bat aurkitu eta galdetegiak betetzeko unea izatea espero dudana aldi berean.

Eskerrik asko eta animo, gutxiago falta da eta!

Nerea

 **IBARBERRI ESKOLA** 13 may. 2020 12:43 ☆ ↶ ⋮
para mí ▾

🌐 euskera ▾ > español ▾ [Traducir mensaje](#) [Desactivar para: euskera x](#)

Kaixo Nerea,
Barkatu lehenago ez idaztea baina oso lanpetuta gabiltz.
Zuk eskatu bezala bidaliko ditugu inkestak. Gure kontu.
Ea jendea animatzen den eta zuk behar adina betetzen dituzten.
Laiister arte,
Nerea

...

 **Nerea Goldaraz** <nagolane2@gmail.com> 13 may. 2020 12:46 ☆ ↶ ⋮
para IBARBERRI ▾

Aupa!
Bai, lasai eta mila esker!!!
Zaindu,
Nerea

...

↶ Responder ↷ Reenviar

2. Eranskina: Irakasleei egindako galdetegiaren erantzunak.

a. Irakurketa lantzeko metodologia: Zer da zuretzako irakurketa? Haur Hezkuntza amaitzerakoan ikasleek irakurtzeko gai izatearen helburua dago? Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan aurkitzen diren haurrek irakurtzen dakite? Irakasle gisa jarduten duzun mailan (idatzi mesedez) irakurketa bultzatzeko metodologia izendatu, garapena azaldu eta erabilitako materiala deskribatu (teknologiaren erabilpenarik?) labur-labur. Irakasle gisa, betidanik metodologia horri jarraitu diozu? Horrela ez bada, ze metodologia erabili duzu?

- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Hasieran hizkien soinuak ezagutu eta identifikatu, kontzientzia fonologikoa barneratu irakurri ahal izateko. Talde bakoitza desberdina da eta dauden mailara egokitu behar da.
- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Irakurketa termino oso orokorra eta zabala da, prozesu luze bat da, oinarritzko aldean mekanika bat duena (ondo ikasi behar dena) eta handik haratago mundua ezagutzeko eta gozatzeko aukera haundiak ematen duena ere. Bizitza osorako den zerbait da. Eskola mailan, Haur Hezkuntza bukatutakoan ez da derrigorrezkoa irakurtzen jakitea, ikasle bakoitzak bere garapena darama eta ez da forzatzen, batzuk irakurtzen igotzen dira eta beste asko bidean edo oraindik urrun ndik inplemedaude hortatik. Irakurketa metodologiari buruz esan behar da aldaketa fase batean aurkitzen garela, txokoetan lan eginez, non inprenta, testu mota ezberdinak, lan koadernoak eta oraindik inplementatzeko dugun ahozko aurkezpenak lantzeko txokoa eta teknologia erabiliz beste programa batzuk.. mahai jolas batzuk...falta zaizkigu. Horretan ari gara! Orain arte eskolan erabili dugun metodologia, funtsean silabikoa izan da, gela osoa batera lan berbera eginez (lan koaderno batzuk erabiliz).
- Lehen hezkuntzako 3. mailako irakaslea: Irakurketari dagokionez, Haur Hezkuntzako helburua ez da haurrek irakurtzen eta idazten jakitea, baizik eta hurbilpen bat egitea, irakurketaz gozatzea (helduak irakurtzen dietenean) eta beraiek irakurketa gozamenerako, ikasteko, ulertzeko tresna garrantzitsua dela ohartzea da. Pixkanaka beraien saiakerak egiten hasiko dira, beraz Lehen Hezkuntzako zikloan hasiko dira irakurtzen. Lehen Hezkuntzako 3. mailan haurrek badakite irakurtzen, baina askotan irakurtzen duten hori ulertzea kostatzen zaie, oraindik, haur askori ongi irakurtzea kostatzen zaielako, mantso, tratatzen dira... eta hori ulermenean traba bat da. Adin

honetan oso garrantzitsua da irakurzaletasuna bultzatzea, gozamenerako tresna bezala eta horregatik bikoteka irakurtzea, tutore-irakurle eta tertuliak bideratzen ditugu. Hauekin hurrek irakurtzen dute helburu batekin: besteekin komentatzeko, besteei irakurri dutena azaltzeko...

- Lehen Hezkuntzako 5. mailako irakaslea: Aurten LH 5. mailan nago. Irakurketa betidanik iruditu izan zait, irakasle bezala, ez dela haurrentzat batere erakargarria. Agian gure errua izan daiteke hori. Ibarberrin, ez dut ikusi ezta ere hurrei irakurketa erakargarri suertatzen zaienik, baina Tertuliekin asko motibatzen dira eta irakurketa modu interesgarri eta aberasgarri batean lantzen dute. Oso modu eraginkorra dela iruditzen zait. Ikasle gehienek, gogotsu irakurtzen dute etxean gero besteen aurrean komentatzeko beraien iruzkinak. Azkenean, debate moduko bat suertatzen da. Tutore-irakurle ere, eskolan lantzen den beste proiektu bat da. Aldez aurretik prestatzen dugu txikienei ahalik eta hobekin irakurtzearren, baina hau ere kosta egiten zaie. Txikiei oso gustura irakurtzen diete, baina aldez aurretik prestatze horrek ez diete motibatzen.

b. Irakasle eta familien harremana: Zure ikasleen familiekin harremanetan egotea garrantzitsua dela uste al duzu? Nola mantentzen duzu harremana haiekin? Ze gai lantzen dituzu? Erlazio ona izan duzu gurasoekin? Haien seme-alaben ikaskuntzan inplikatzeko dira? Interesatzen zaigun gaien zentratuz (irakurketa) eskolan irakurketa bultzatzeko metodologiengatik inguruko interesa plazaratzen dute? Zure ustez, ikasleak irakurtzera estimulatzen dituzte?

- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Bai, guraso orok bere seme alabak irakurtzen ikastea nahi izaten du. Etengabe familiekin harremanetan egoten gara haur bakoitzaren erritmoa eta maila kontutan hartuta irakurtzera animatu eta irakurtzen lagundu dezaten.
- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Orokorrean irakasle eta familien arteko harremanak onak dira, normalean korreo, telefonoz eta baita ere modu prezentzialean aritzen gara. Eta lantzen diren gaiak umeen ikasketa prozesuari buruzkoak izaten dira, irakurketa, idazketa, eragiketak egiteko eta harremanatzeko gaiak dira. Alde emozionala, izaeraz eta portaeraz ere hitz egiten da. Orokorrean gurasoak beraien seme-alaben hezkuntzaz arduratzen dira (salbuespenek ere badira) eta arazoren bat ikusten badute galdetzen dute ea nola lagundu dezaketen. Batzuk haratago doaz (gutxienak) eta nola

lantzen den jakin nahi dute . Egia esan ,batzuk beren umeak irakurtzera estimulatu asko saiatzen dira ,bilatzen dituzte ipuinak ,jolasak jarduera ezberdinak ...baina askok betiko moduan irakurtzea nahi dute,liburu bat hartu eta lerroz lerro txandaka irakurri (Ondo dagoela ere).

- Lehen hezkuntzako 3.mailako irakaslea: Familia-eskola harremana ezinbestekoa da eta hori bultzatzeko astero talde elkarreragileak antolatzen ditugu. Gurasoekin harremana ona da eta erabateko kontaktua dago haiekin, batzutan formalagoa (ebaluaketa amaierako elkarrizketak eta beharra ikusten den guztietan) eta beste batzutan informagoak (telefonoz, emailez...). Gurasoek normalean L.Hko 3.mailan tutore-irakurle eta tertuliak bereaien seme-alabekin prestatzen dituzte eta horrek ikasleak proiektu hoietan motibazio handiagoa izatea bultzatzen dute.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako irakaslea: Nire ustez nahiko harreman ona izan dut orokorrean gehienekin, baina zaila da beti denen gustuko lana egitea. Ikasle bakoitza bakarra da. Ikasle bakoitzak bere behar, zailtasun, nahi eta interesak ditu eta irakasle bakar bat oso zaila da ikasle guztiengana iristea. Ibarberrin egia esan, laguntza asko daude eta horrek egunerokotasunean asko laguntzen du. Nire ikasgelako gurasoak, bereaien seme-alaben ikaskuntzan asko inplikatzeko direla esango nuke. Oso sentazio ona daukat. Askok interesatzen zaie bereaien umeek egiten dutena, ikasten dutena eta daukaten jarrera. Irakurketari dagokionez, ikasleren batean tertulian adibidez, hutsunea sumatu izan badut, hau da, tertuliako saioetan ez badu komentario bakar bat ere egiten, gurasoekin jarri izan naiz harremanetan honen zergatia jakitearren. Ikasle batekin pasa zait hori eta berehala jarri ziren gurasoak lanean eta honen ondotik, tertulietan gehiegi eta dena hitz egiten zuen ikasle honek.

c. Irakasleen arteko harremana: Lehen Hezkuntzan eskolako irakasle guztiek irakurketa metodologia bera lantzen dute? Ikasgelan sorturiko arazo baten aurrean beste irakasle kideari laguntza eskatzen zaio elkarrekin erronkari aurre egiteko? Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen artean jarraitasun eta kolaborazioa existitzen al da? Kriterio pedagogikoa aplikatzean aske sentitzen al zara?

- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Haur eta Lehen hezkuntzaren artean koordinatzen gara.

- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Lehen Hezkuntzako irakasleak adosten dugu nola egin lanketa ,gure kasuan 1. eta 2. mailan 4 irakasle gara eta aldaketa prozesu batean murgilduta gaude denak (lehenago aipatu dudan bezala.)Arazo baten aurrean (arazo motaren arabera) lankidearekin partekatzen da edo eta logopeda ,Ptko irakaslearekin eta orientatzailearekin beharrezkoa bada ere. Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen artean koordinazio bilerak egiten dira ,(ez asko) eta egia esan jarraitasun gehiegirik ez dago.Beraiek txokoka eta proiektuka funtzionatzen dute ,eta gu zenbait arlotan ere (Matematikan eta orain Euskarari hasiak gara).Arloei begira ,Haur Hezkuntzako irakasleak saiatzen dira hurbiltzen Matematika eta idazketa -irakurketa mundura modu oso bisual eta ludikoen bidez, jakinda ere etapa hori ez dela beharrezkoa. Kriterio pedagogikoak ezartzeko arazorik ez dut ikusten ,lankideekin ideiak partekatuz eta adostuz.
- Lehen hezkuntzako 3.mailako irakaslea: Eskolan irakurketa bultzatzen duten bi metodologia ditugu L.H osoan: tutore irakurle eta tertulia dialogikoak. Bestalde gela barruan beste dinamika batzuk eramatean ditugu: bikoteka irakurketa, bakarka irakurketa eta gela batzuetan irakurritako liburuen zuhaitza adz, haurrek irakurtzen dituzten liburuen marrazkia eta azalpen txiki bat idazten dute eta gelako zuhaitzean zintzilikatzen da. Gure eskolan irakasleen arteko harremana ona da eta gela batean praktikan jartzen den zerbaitek arrakasta badu edo ongi funtzionatzen badu, eskolako gainontzeko irakasleei zabaltzeko aukera ematen da .
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako irakaslea: Irakasleen arteko harremana oso ona dela esango nuke. Hemen pertsonaren kontua dela esango nuke hau aurrera eramateko. Izan ere, gutako bakoitza ikasleak bezala, bakarra da eta bakoitzak bere izaera eta lan egiteko modua dauka. Nire ikuspuntutik, puntu honetan galdetzen dena oso garrantzitsua da ikasleengana egoki iristeko eta transmititu beharrezkoa transmititzeko. Irakaslegoa da ikasleen ikaskuntzan lan egiten duena eta ezinbestekoa da elkarren arteko harreman egokia egotea hau aurrera joateko. Koordinazio egokia dago. Denok lantzen ditugu jarduerak eta proiektu berak, baina egia da, tarteka gure artean hitz egin beharko genukeela edota bata bestearen gelan sartu ikusteko eta jakiteko bakoitzak nola eramatean dituen irakurketa proiektu hauek aurrera zeren eta nahiz eta denok teoria jakin, seguru ez ditugula denok irizpide berdinarik

Familien eta irakasleen papera ikasleen irakurzaletasuna sustatzen

jarraituko eta garrantzitsua da gure arteko lana ikustea eta gainbegiratzea ikasleei ahalik eta irakaskuntza aberasgarriena eskaintzeko.

d. Ikasgelan arreta dibertsitateari: Irakurketari dagokionean, nola uste duzu behar ezberdinak dituzten haurren integrazioa hobetuko zela? Ikaskide guztiek jarduera bera burutzen dute edo material alternatiboa erabiltzen dute? Ikasle aurreratuekin jarduera extrarik egiten al duzu?

- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Haur bakoitzak bere erritmoa jarraitzen du baina talde txikitari talde elkarreragileetan, elkar laguntzen dira heldu batek gidatuta eta denak irakurritakoa ulertu arte ez dute ariketan aurrera jarraitzen. Taldean errespetoa, solidaritatea eta konfiantza lortzen dute eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen die.
- Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakaslea: Ikasgelan, aniztasunari erantzuteko material ezberdinak erabiltzen dira eta talde izaera bizkortzen saiatzen gara jarduera ezberdinak eginez. Askotan txokoetan lanean daude, eta txoko bakoitzean zeregin ezberdin bat dute eta beraien arteko laguntza sustatzen saiatzen gara (Hobeto moladutzen dena zailtasunak duenari lagunduz).
- Lehen hezkuntzako 3. mailako irakaslea: Ikasgelan aniztasunari erabateko arreta ematen zaio eta horretarako tresna desberdinak jartzen dira martxan. Helburua ikasle guztiak talde osoko dinamikan sartzea denez, hori bultzatzeko eta ikasle guztien parte hartzea bultzatzeko dinamika kooperatiboak oso ongi funtzionatzen dute, hau da, ikasleak talde txikitari lan eguiten dute eta ahal den neurrian elkarlana bultzatzen duten aktibitateak bultzatzen ditugu. Bestalde, talde elkarreragileetan lan egitearen arrazoia aniztasun hori errespetatzean datza.
- Lehen Hezkuntzako 5. mailako irakaslea: Zailtasunak dituzten ikasleak beti egon dira eta beti egongo dira, hasieran esan bezala, ikasle bakoitza bakarrik delako eta bakoitzak bere behar eta zailtasunak dituelako. Ikas Komunitatean oinarrituz, taldean egiten dugu lan uneoro eta talde heterogeneoak egiten saiatzen gara. Aurrera eramaten ditugun Talde Elkarreragileetan adibidez, elkarri laguntzen diote eta denek egiten dituzte denek ikasten dituzten ekarpenak. Batak besteari lagunduz asko ikasten dute. Askotan, beraien artean hobeto ulertzen dira irakasle batekin baino. ELKARREKINTZAK dira dibertsitatearen giltzarri nire ustetan. Horretaz gain, oso garrantzitsuak dira hauek denak aurrera eraman ahal izateko, egunero bai ikastetxean bai etxean

Familien eta irakasleen papera ikasleen irakurzaletasuna sustatzen

landu beharreko BALOREAK barneratzea. Elkar errespetatzen badira, gauzak askoz errazago egiten eta lortzen dira eta ikasleen autoestimua eta motibazioa positibo mantentzea ezinbestekoa da.